

ELKARRIZKETA: JOSEBA AZKARRAGA • EKARPENAK: SAREAN ELKARTEA •
EKARPENAK: KONTSEILUA • GALDEIDAZUE: IÑAKI MARTINEZ URMENETA •
ORBELA ETA ARANTZA ATERPETXEAK • ATZEKO ATETIK: LIERNI ALTUBE

hh
hik hasi

154

4 EURO • 2011KO URTARRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

Palestina

Okupazioa haurren begietatik

Heldu musikari, heldu literaturari



AMAIA LAPITZ

ETA ERREGINA GORRIAREN HILOBIA

KATIXA AGIRRE

Abentura eta misterioa,
neska gaztea baten eskutik.
Sail berri bateko lehen eleberria

12-16 urte bitartean

aitona-amonekin kantari

IMANOL URBIETA



EUSKAL MITOLOGIA HAURRENTZAT

TXILIKU · J.A. LOPETEGI

8-10 urte bitartean



elkar

www.elkarargitaletxea.com

aurkibidea



8
gaia

PALESTINA

Palestinako hainbat erakunde sozial, politiko eta sindikalek adierazpen israeldar-sionista guztiei, batik bat kulturei eta akademikoiei, boikot solidarioa egiteko deia egin zuten. Haien artean zeuden Unibertsitate Irakasle eta Langileen Palestinar Federazioa eta Maisu eta Maistren Federazioa.



15
elkarrizketa

JOSEBA AZKARRAGA

Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa liburuaren egilea da. XXI. mendeari begira gogoeta estrategikoa egin zuen Gizabidea Fundazioak, hezkuntzaren alorrean orain arteko lan ildoari jarraitu edo beste bide berri batzuk ireki erabakitzeko.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

PALESTINA

OKUPAZIOA HAURREN BEGIETATIK

16 elkarrizketa

JOSEBA AZKARRAGA

26 ekarpenak

Hizkuntzen garapena eskola errealitatean. *Sarean* elkartearen hausnarketa

28 esperientziak

Euskararen Kontseilua. Euskararen ezagutza berma dadin, ikasgai guztietan lantzea

32 galdeidazue

Erotu egiten al ditugu gure seme-alabak eskolaz kanpoko ekintzekin?

Iñaki Martínez Urmeneta

35 berriak

40 nora joango gara?

Arantza eta Orbela aterpetxeak

42 Atzeko atetik

Lierni Altube

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko eta gaia ataleko irudiak: Ainara Gorostitzu eta Iasone Parada. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2010-12-16). Kopurua: 3.600 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Euskarak merezi du,
hezitzaileentzat ona da
eta HIK HASIk behar du.

Harpidetu eta
HIK HASI egitasmoa
bermatu



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararitzen ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

urtarrila

PISA frogen hamaika irakurketa



Emitza hobeak lortu dituzten herrialdeek ahalegin handiagoak egiten dituzte irakasteko erak hobetzen eskaintzen diren edukiak aldatzen baino.

Urtearen hondarrean PISA emaitzak iritsi ziren. PISA 2009 frogak, matematikan, irakurketan eta zientzietan 4. DBHko ikasleek zuten maila neurtu zuen. Froga hori, ELGEko (Ekonomi Lankidetzeta eta Garapeneko Erakundeak) 45 herrialdetan egin zen.

Aurreko beste bi frogen emaitzak –PISA 2003 eta PISA 2006– argitaratu zirenean gertatu zen gisan, oraingoan ere zeresan handia eman dute.

Emaitzak emaitza, aitortu beharko litzaioke edozein kanpo neurketak hausnarketarako eskaintzen duen aukera. Ez da ahaztu behar, eta emaitzen pare jarri beharko litzateke gainera, PISAk ikasleen errendimendua neurtzeaz gain, ikasleengan ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren inguruan gertatzen diren baldintzen gaineko azterketa egin nahi duela.

Emaitzen jendarteratzeari iritzi eta gogoeta andanak jarraitu dio. Datuek gure ikasleek zientzien arloan duten

gabezia argitan utzi dute. Eta segidan etorri dira espekulazioak. Haien artean, bada, besteak beste, gure heziguneen irakasteko erari erreparatu dionik. Gure irakasteko era memoristikoa eta teorikoa da kasurik gehienez. Alta, PISAren aztertzeko modua gehiago kokatzen da tauletatik, datuetatik eta grafikoetatik abiatuz problemen ebazpenean. Beraz, litekeena da zientzien irakaspeneren gaineko arazoa ez izatea eskaintzen zaion ordu kopurua baizik eta irakasteko era.

Ildo berean, ELGEko analista den Pedró-nen arabera, nazioarteko ebidentziek diote udalek parte hartzen duten beste gobernu ereduarekin eta zentroen autonomia maila handiagoa duen testuinguru batean, emaitzak hobetuko lirakeela. Zer irakatsi eta nola ebaluatu erabakitzeke autonomia handiagoa duten lekuetan emaitzak hobeak direla, alegia.

Antza, emaitzetan gora egin duten

herrialdeetan, gehiago arduratzen omen dira irakasteko era hobetzeaz eskaintzen dituzten edukiak aldatzeaz baino.

Badira hainbat datu zer pentsatua ematen dutenak. Esaterako, frogara aurkeztutako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 4.768 ikasleetatik %20 inguru ez zela ari bere adinari zegokion ikasturtea egiten, errepikatzailea zen.


PISA 2009 frogan Hego Korea izan da emaitzik altuenak lortu dituenak. Izugarriko progresioa izan omen du, gainera. Ispiluaren beste aldean, ikasleak dauden aldean, ordea, beste datu batzuk daude. Emaitza onek talka egiten dute egunean hamaika orduz eskolara joatea behartuta dauden ikasleen estres eta atsekabe mailarekin. Hego Korearrak, ELGEko ikaslerik onenak izateaz gain, estres maila altuena eta zorientasun gutxi sentitzen dutenak dira. Ez gara gu hori diogunak, emaitzek diote!

kronika

EAetik kanpoko eskolak diruz ez laguntzeko eskatu du Legebiltzarrak. Jaurlearitzak eutsi egingo dio, ordea, Seaskarekin datozen hiru urteetarako zuen hitzarmenari, 2012 arte.

Arabatik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik kanpo dauden "ikastetxe pribatuekin" inolako laguntza ekonomikorik ez hitzartzeko eskatu dio Legebiltzarrak Jaurlearitzari. Dena den, EAetik kanpo euskara sustatzeko bestelako ekimenak garatzeko aukera ez du ukatzen, betiere tokiko erakunde publikoekin egindako akordioen bitartez. PSE-EEK eta PPK bat egin zuten ekimen hori aurrera eramateko. Gainerako taldeek aurka bozkatu zuten, UPyD izan ezik, abstenitu egin baitzen.

Nafarroan, berriz, PSNren ustez, Euskararen Legea ongi dago, eta ez da lehentasunezko gaia. Ohar baten bidez jakinarazi duenez, "NaBai eta Batasuna euskara inposatzeko norgehiagoka ari dira".



Nafarroako ikasle gehiagok gainditu du 4. DBH

2008-2009 ikasturtea izan da aztertu den azkena. Datu horien arabera, ikasle gutxiagok errepikatu behar izan dute ikasturtea. Hala ere, ikasle hauek guztiek errepikatu behar izan dute: 1. DBHn (12-13 urte) % 11,4; 2. DBHn % 13,1; 3.ean % 13,7 eta 4.ean % 8,9. Horrek, zera adierazten du, nafar ikasleen % 40k Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, derrigorrezko ikasketa izanda, errepikatzen duela.

Datu horiek ikasketa prozesuaren porrotaren erakusgarri badira ere, badaude beste hainbat datu porrota ikusarazten laguntzen dutenak. Izan ere, errepikatzen ez dutenek, ikasturtea gainditzen dute, baina asko ikasgairan bat edo beste gainditu gabe hasten dira hurrengo ikasturtean. Datuetan, horre-

la litzateke: 1. DBHko ikasleen % 20,8k maila gainditu arren, ikasgairan bat gainditu gabe uzten dute. 2. DBHn % 23,6k uzten dute ikasgairan bat, 3.ean 25,3k eta 4.ean % 25,5ek.

Azken urteko emaitzetara joz, hau da, 4. DBHko datuetara, % 65,7k soilik gainditzen ditu ikasgai guztiak. Horrekin, aurreko ikasturteak kontuan hartu gabe, azken ikasturtean ikasleen 2/3 ere ez da pasatzen guztia gaindituta.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek arbela digitala izango dute

Nafarroa osoan, Lehen Hezkuntzako 5. mailako (10-11 urte) 445 ikasgeletan arbela digitalak jarriak daude, jada. 6. mailako geletan, berriz, aurtengo ikasturtea amaitu aurretik jartzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak.

Integra TIC programa 2009an hasi zen 19 ikastetxetan ordenagailu eramangarriak jarri. Ordenagailu horiekin ikasgelan egoten diren denboraren % 25 aritzen dira lanean. Edozein ikasgai lantzeko erabil litezke ordenagailu horiek, hala nola, Euskara, Atzerriko hizkuntza, Matematika, Gizartea, Zientzia, Gaztelania, Plastika, eta abar.

Aurtengo ikasturtean, ordenagailu digitalak banatu beharrean, arbela digitala ari da banatzen Nafar Gobernuak.

"Euskararen eta haren kulturaren azpigarapen kulturala euskaldunen mendekotasun politikoa- ren ondorio zuzena izan da"

Ane Larrinaga



Hizkuntza gutxituen ofizialtasun aitortza eskatu du euskalgintzak

Frantziako Parlamentuan hizkuntza gutxituen gainean aurkeztu duten lege proposamenaz gogoeta gazi-gozoa plazaratu dute euskalgintzako jendarte eragileek. Batetik, lege proposamenari euskalgintzak aspalditik aldarrikatzen duen ofizialtasun aitortza falta zaiola azpimarratu dute. Horrez gain, Frantziako parlamentuko ikerketa batzordeak aurkeztu duen lege proposamena bera nabarmendu dute. Ez da gobernuak aurkeztu duen lege egitasmo bat, diputatuek berek aurkeztu duten proposamen bat baizik.

Lege proposamenak alde baikorra ere badu. Frantzian, gaur egun euskarak ez du inolako ezagutza ofizialik eta lege proposamena onartuko balitz, norabide horretan egindako lehen urratsa

litzateke.

Hezkuntza arloan ere alde baikor- rakk ditu proposamenak. Besteak beste, erakunde publikoei eraikinak egiteko laguntza ematea baimenduko lieke, herriek ikastolen ibilmolderako laguntzak ematea. Horrez gain, euskararen irakaskuntza orokortuko luke, haur guztiei euskara ikasteko eskaintza egi- nen litzaiekeelako automatikoki. Gaur egun, haiek eskatu behar dute, eta gutxieneko kopururik lortu ezean, ezin dute euskaraz ikasi.

Lege proposamenak 3. artikuluan aipatzen du lurralde erakundeen esku dagoela bere eremuan dagoen hizkuntza gutxituari estatus "babestua" ematea, baina ez du ofizialtasunik aipatzen, eta hizkuntzaren normalizazioa ere ez. Baikor hartu da hizkuntza erabilera traba- tatzeko saioak diskriminatzailatzat hartzea eta auzitara joateko aukera jasotzea. Arrazakeria, antisemitismoa eta xenofobia zigortzen dituen atal berean kokatu da proposamena.

Elkar hartzeko beharra

Alde diren diputatu guztiek elkar hartzea funtsezkoa da proposamenak onartzeko aukera izateko. Aukera txiki- kiena izateko, Frantziako Gobernuaren adostasuna behar du proposame- nak, bestela atzera botako da. Proposa- menari sostengua ematen, oraingoz, ez dira ageri Iparraldeko hiru diputatuak.

Datuen arabera, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleen artean % 80 sare sozialetan ibiltzen da (Tuenti, Facebook, MySpace...).

Batzuen esanetan, sare sozialetan ibiltzeak ez du, berez, arazorik sortzen. Azken finean, gaztetxo horien beharretara egokitu den Interneta da sare soziala, ez besterik.

Hala ere, irakasleen, gurasoen eta hezitzaileen artean kezka iturri dira gaztetxo- en identitate digitala nola eraikitzen ari den eta hedatzen ari den pribatasun maila.

Heziketa ikuspegitik, ez du zentzu handirik gazteei sare sozialak ez erabiltzeko edo nola erabil behar dituzten esateak, erabilera arduratsua izaten animatu behar ditugu. Beraien erabilerak izan ditzaketen ondorioen gainean, onak eta txarrak, hitz egitea komeni da.

Adibidez, ohartzen al dira gazteak haien argazki bat Interneten jartzeak zer ondorio ekar lezakeen? Gauza horiei buruz aritu behar dugu.

GAIA

PALESTINA

Okupazioa haurren begietatik





Badira bost urte Palestina-ko 170 erakunde sozial, politiko eta sindikalek baino gehiagok adierazpen israeldar-sionista guztiei, batik bat kulturei eta akademikoei, boikot solidarioa egiteko deia egin zuela. Haien artean zeuden Unibertsitate Irakasle eta Langileen Palestinar Federazioa eta Maisu eta Maistren Federazioa.

Israel nazioarteko legeria betetzera edo palestinarren kontrako zapalkuntza (jazarpena, sarraskiak, hautazko suntsipenak eta Apartheid harresia, besteak beste) amaitzera behartzeko nazioarteko esku-hartze era guztiek orain arte huts egin dutela ikusita egin zuten eskaria.

Euskal Herrian jaso da deia. Udan euskal kultura eta hezkuntza munduko hainbat lagun Palestinan izan ziren, egoera bertatik bertara ezagutu, eta boikotaren deiaren oihartzun izateko. Hik Hasi ere haiekin izan zen.

Biladi hadi!

Biladik lurra esan nahi du Palestinan. Hemen, berriz, Biladi Hadi-k Euskal Herriaren eta Palestinaren arteko kultur harremanak sustatzeko sortutako brigada esan nahi du, brigada kulturala.

Askapenaren eta Komite Internazionalisten ekimenez sortutakoa da, eta kultura eta hezkuntza munduko lagunek osatu zuten. Hala, bertsolariak, zinegileak, musikariak, kazetariak, pailazoak, irakasleak, ikasleak eta beste hainbat alorretako kideak osatu zuten. Tartean ziren ere Arbizuko, Zestoako, Alegiako eta Igorreko alkate eta zinegotzi bana.

Palestinak bizi duen egoera bertatik bertara ezagutzera joan ziren guztiak hara. Hala, alorkide zituzten lagun palestinaren hitzetan ezagutu zuten palestinaren bizitzako hainbat adierazpen.

48ko lurraldeetan eta Palestina okupatuaren Zisjordaniako hainbat herritan izan ziren. Gazara joateko asmoa zuten, baina Israelek oraindik ez dio erantzun haien eskariari. Izan ere, Palestinako edozein lurraldetara joateko Israeldik pasa beharra dago, ezin bestez.

Bulego askotan izan ziren, eta baita sukalde askotan ere. Aginte palestinarraren eta beste hainbat erakunderen



ikuspegiak gain, kaleko jendearen ikuspegia ezagutu ahal izan zuten, beraz.

Guk, gainera, Nabluseko unibertsitatean, Balatako iheslarien eremuan, Hebrongo eta Mardako eskola bisitatzeke aukera izan genuen.

Hango haurrek oparitutako marrazkiak eta irudiak bildu genituen, egunero gainditu beharreko bizimoduaren argazki pertsonalak.

Zuekin partekatu nahi genituen. Horretarako, aireportuko mugako galbahea estua izaki, postaz bidali genituen etxera, bidea errazago egingo zutelakoan... Madrilen geratu dira kateatuta, ordea.

Hala ere, esku artean duguna zuekin partekatzea deliberatu dugu. Gure oroimenean ez ezik, zuen irudimenean ere izan daitezten.

Brigadaren asmoa Palestinako egoera etxean ezagutaraztea da. Eta, aldi berean, Israeli boikota egiteko, herrialde horretan inbertsiorik ez egiteko eta zigortzeko kanpainan parte hartzeko deia bizkortzea.

Hartutako konpromisoei helduz, Palestinan ikusitakoa erakustez gain, Euskal Herriko ikastetxeetan jadanik egin diren esperientziak ekarri nahi izan ditugu orri hauetara.



G

Biladi hadi! Palestinan: hezkuntza

Eztanda hotsez betetzen dira Jesuralemgo uztaileko ilunabarrak. Lehen egunetan, Biladi Hadi! brigadako kideok tiro hotsak izango ote ziren pentsatu genuen. Berehala jakin genuen, ordea, eztanda haien jatorria.

Ospakizunetan ari ziren familiek jaurtitako suziriak ziren. Seme-alabek Batxilergoaren amaierako Tauihi azterketa gainditu izana ari ziren ospatzen.

Izan ere, hezkuntzak garrantzia itzela du palestinarentzat. Eta familiek arreta handia ematen diote hezkuntzari familia barruan. Hala, ikasle batek ikasturtea gainditzen ez badu edo ikasketetan larri ibili bada, haren amaren eginbeharra izango da hurrengo ikasturtean seme-alabei laguntzea; horretarako, egunero, denbora dedikatuko die ikasketetan laguntzeko.

Okupazioak eta Israelek palestinaren aurka egiten dituen erasoek ez dute asko laguntzen hezkuntza sisteman antolaketan. Etxeko gazteak edo haurrak ordezkatu behar baitu hildako edo espetxeratutako palestinarrak bakoitza familia-buru lanetan. Egun, 7.000 preso politikoko bakoitza gehiago daude, 7,2 milioi iheslari, eta hildakoak ere asko dira. Palestinar familia gehienetan du ondorioa gatazkak.

Bestalde, neska 15 urtetik aurrera ezkon daitezke. Ohitura horren aurka lanean ari badira ere, oraindik asko dira oso gazte ezkontzen direnak.

Horiek guztiak eragin zuzena dute eskolan. Ondorioz, eskolako huts egitea handia da, batez ere BHN.



Lurralde okupatueta muturreraino iristen da egoera.

Gazako egoera

Gazako biztanleen erdia baino gehiago, % 53, 18 urtez beherakoa da.

2009/2010 ikasturtean 640 eskola zeuden Gazan (383 Hamasen gobernuak kudeatutakoak, 221 Nazio Batuek kudeatutakoak eta 36 pribatuak). Horietan, 441.452 ikasle ari ziren.

NBERen eskolen % 88 eta gobernuaren % 82 txandaka aritzen dira, ikasle kopuru handiari erantzun ahal izateko. Murrizketek eta blokeoak ezinezkoa egiten dute eskola berriak eraikitzea edo kaltetutakoak konpontzea. Urterogora doan eskariari erantzun ahal izateko, Hezkuntza eta Goi Mailako Hezkuntza Ministerioak emandako datuen arabera, 105 eskola berri eraiki behar dira.

Gazako iparraldean, kaltetutako

eskoletako 9.000 ikasle, inguruko 73 eskolatan kokatu zituzten. Horietatik, 4.000 ikaslek jada gainezka zeuden bi eskolara joan behar izan zuten. Gobernuaren eskoletako BHko 1.200 ikasle ikasturtea hastean eskolarik ez izateko arriskuan zeuden.

Eskola horietan, ikaslearen presentzia gero eta txikiagoa da, eta eskola arrakasta ere txikiagoa egin da, Israelek egindako operazio militarrek maiz eteten dutelako eskolako jarduna. 2007/2008 ikasturteko lehen sei hilekoan, LHko azken ikasturteko 16.000 ikasletatik, soilik % 20k gainditu zituen matematikako, zientzietako, ingeleseko eta arabierako azterketa estandarizatuak.

“Berun urtua” operazioak ondorio suntsitzaileak izan ditu blokeoaren ondorioz jada ahulduta zegoen hezkuntza sisteman. Gutxienez 280 eskola eta haurtzaindegi kaltetu ziren. Gainera, 6



eraikuntza unibertsitario suntsitu zituzten, eta beste 16 kaltetu.

Hezkuntza eta Goi Mailako Hezkuntza ministerioaren arabera, eraso horien ondorioz, 164 ikasle eta 12 irakasle hil ziren beren eskoletan; ikasle horietatik, 98 Gaza iparraldekoak ziren. Gainera, 454 ikasle eta 5 irakasle zauritu zituzten. NBERen eskoletako 86 haur eta 3 irakasle erail zituzten.

Eskola adineko haurrek, horietatik milaka familiartekoek edota etxea galdu dutenek, trauma psikologikoak eta antsietatea pairatzen dituzte oraindik. Beraz, laguntza psiko-soziala eta jolas eta aisialdiko jarduerak behar dituzte.

Erasoaren une gorenean, gutxienez 51.000 lagun NBek Gazan dituen 44 eskolatan babestu ziren. Horietatik, 28.560 haurrek ziren. Horren ondorioz, eskola horietako gelek, saneamenduek eta altzariek higadura saihestezina jasan zuten.

Eskola adinean diren haurren bostetik batek, gutxi gorabehera, iodo gabetasuna pairatzen du. 9 eta 12 hilabete arteko haurren % 61,6k anemia du; haurdun dauden emakumeen artean, berriz, % 29k du anemia. Gainera, 1etik 5 urtera arteko haurren % 22k A bitaminaren gabezia du.

Teilatu teiltu eskolara

Palestinarrak, ordea, oztopoen gaitetik eskolara iristeko bideak aurkitzen dituzte. Hebron zaharraren bihotzean, israeldarrek kolonia handia eraiki zuten. Palestinarrak debekatuta dute harrak sarrera. Koloniaren inguruko etxe palestinarrek itxita daude. Eskolarako bidea itxi egin du koloniak. Haraino hurbildu zen Biladi Hadi! brigada.

Eskola txikia da, NBek emandako diruarekin txukun margotuta dago. Inguru hartatik, han behetik, Hebrongo teiltuak ikusten dira, kolonia eta hura

babesteko arantzez jositako kontrol dorreak nabarmenak dira.

Eskolako haurrek, israeldarren kontrol puntuak igaro ezinik, teiltatu teiltatu egiten dute eskola arterako bidea. Noizbait israeldar soldaduek bide hori balez itxiko dutela jakinik ere.

Txarrantxen beste aldean

Mardako eskolako haurrei beren herria eta familia marrazteko eskatu genien. Mahai luze bat atondu genuen; han ipini genizkien Ramalan erositako margo eta paperak. Mardan ez baitago dendarik.

Berehala hasi ziren lanean, erreguren beharrik gabe, neskak zein mutilak, handiak eta txikiak.

Eta txarrantxa ilarak hasi ziren paper zuriak betetzen. Txarrantxa ilara amaigabeak. Izan ere, Marda eta Palestina txarrantzez eta murriz inguratutako kartzela handia da. Txarrantzak banatzen ditu mundutik.

Rawda 8 bat urteko neskatxa da. Kolore marroia aukeratu zuen orrian txarrantxa margotzeko; palestinar luraren kolorea du txarrantzak.

Txarrantzak banatu gintuen. Orriaren alde batera geratu ginen gu, mundua. Beste aldean, arrasto sendoz, garraipenaren ikurra adierazten duten bi hatzak marraztu zituen, irmo.

Kolore gorriaren bila zebiltzan gehienak, Palestinako bandera marraztu nahi ziguten.

Egun-pasa egin genuen haiekin.

Mardako kaleetan zehar ibili ziren, gure titiriteroen atzetik kalejiran. Arratsaldean, eskolako jolastokian saioa eskaini zien Porrotzek. Txarrantzak banatutako munduak Palestinaren koloreak behar dituela kantatu zuten gurekin batera, mundua benetan koloretakoa izan dadin.

Nabulusen, udalekuetan

Nabulus Bigarren Intifadan bereziki zigortutako herria da. Kale estuak dituen Alde Zaharrak, estuegiak haurrek han jolasteko. Martirien eta presoaren seme-alabek aukera dute, uztailean, hiru astez udaleku berezi batzuetan parte hartzeko.

Gogo onez hartu gintuzten han. Margoak eta paperak ikusi orduko lurrean eseri eta marrazten hasi ziren denak.

Ibrahim ate ertzetik begira zegoen, zelati. 7 bat urteko mutikoak aita tiroz hiltzen eta haurdun zegoen ama tirokatzten ikusi zituen hilabete batzuk lehenago. Ez zigun begirik kendu, ezta guk ere hari.

Azkenean, Porrotzek zakuan sartzen zituen koloretako zapiak ikustera gerturatu zen. Najik eskua sartu eta Palestinako bandera atera zuenean, barre txiki bat marraztu zuen Ibrahimen aurpegian.

Palestina irrien beharrean dagoela entzun genuen egun eta leku askotan. Bizitza hain zail eta krudel bihurtu duten herri horretan irriak eta malkoak banatu izanak harrotasunez bete gintuen brigadakideok.



Palestina Euskal Herrian lantzen

2005eko udaberrian senidetu ziren Marda (Zisjordania) eta Arbizu (Nafarroa).

Herri txikiak dira biak: Palestinakoak 2.000 biztanle inguru ditu, eta Euskal Herrikoak, berriz, 1.000 inguru.

Mardak, ordea, Israelen okupatuta duen Zisjordaniako lurraldea izanik, kolonia bat du gainaldean, Ariel. Kokaleku horretan 18.000 kolono sionista bizi dira. Ariel da, hain zuzen, lurralde okupatuetako kolonia sionista handienetakoa.

Okupazioa hasi zenetik, Mardak bere lurren erdiak galdu ditu okupazioaren *apartheid*aren azpiegituren ondorioz. Gainera, berez, baliabide natural asko dituen lurralde aberatsa bada ere, Israelgo gobernuak kendu egin dizkie.

8 metroko murrubatek eta soilik jarduertzat den errepide batek inguratzen du Marda. Kartzela handi batean bizi dira, hortaz, mardarrak.

Mardan, 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrentzako bi eskola daude: bat neskenentzako eta bestea mutilentzako.

Arbizuko Udalak, arlo instituzionalan ez ezik, herritarrengan sustraitu nahi du senidetzea, batez ere. Horretarako, hainbat esparrutan lan egiteko deia egin die arbizuarrei. Zizkerte Kultur Elkartearen inguruan bildu dira hainbat ekimen. Hezkuntza arloan ere, Arbizuko bi ikastetxeek, Andra Mari ikastolak eta Arbizuko eskola publikoak, aurreko ikasturtean landu zuten Palestinako gaia ikasleen artean.



Arbizun, olibondo bat dago landatuta, Berriain mendiarri begira, herritarrek palestinarrak gogora ditzaten.

Maite zaitut, Marda!

Eskolako Guraso Elkarteak Palestinako gaia eskolan lantzeko eskaria egin zien irakasleei.

Palestinako historiaren, hezkuntzaren eta uraren egoeraren gaineko prestakuntza jaso ondoren, lanean hasi ziren eta ikasleekin lantzeko materiala osatzeari ekin zioten.

Proiektua, batik bat, Haur Hezkuntzako 2 eta 6 urte bitarteko haurrak buruan zituztela osatu zuten. Era berean, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei ere, oinarri bera erabiliz, egoituetako jarduerak eskaini zizkieten. Garapen Hezkuntzarako Vicente Ferrer Espainiako Sari Nazionalako bigarren saria lortu zuen proiektuak.

Proiektuaren abiapuntua ipuina da. Ipuinak uraren arazoa kontatzen du, irakasleek sortu zuten eta euskaraz, gaztelaniaz eta arabieraz dago.

Jarduerak erakargarriak izan ziren, eta, ikasleen interesa bereganatzeaz gain, gurasoena ere bereganatu zuten; izan ere, oso motibatuta parte hartu zuten.

Horra prestatu zituzten jardueretako batzuk:

- Ipuina: proiektuari ipuinak ematen dio hasiera. Ipuina irudi orrietan aurkeztu zieten ikasleei.

- Oharra etxekoentzat: Palestinaren gaia lantzen hasiko zirela jakinarazteaz gain, gaiarekin lotuta etxean zituzten liburu, objektu, informazio eta antzekoak eskatu zizkieten.

- Sukalde lantegia: Ghaybeh-ak egin zituzten, gurinezko galletatxoentzakoak.



- Marda herria: Mardako argazkiak proiektatu zituzten eta, gero, argazkiak atera zituzten Arbizun. Ondoren, horma irudi bat osatu zuten argazki guztiekin, collage moduan.

- Urarekiko kontzientzia hartzea: urak guretzat duen garrantzia eta zeinen beharrezkoa zaigun aztertu zuten. Horma irudia egin zuten uraren gaineko datuekin. Egunero gutako bakoitzak gastatzen dugun ur kopurua ur botila hutsekin irudikatu zuten. Amaitu zutenean, gurasoak gonbidatu zituzten horma irudia ikustera, eta landutakoarekin osatutako informazio orriak banatu zizkieten.

- Maite zaitut, maite zaitut Marda: Piritx eta Porrotx pailazo taldearen *Maite zaitut* abestiaren koreografia egin zuten, eta bideoz grabatu. Abestia inge-



lesera itzulita dago, Mardako haurrek uler dezaten.

- Erakusketa: palestinar haurrek egindako eta SODEPAZ GKEak utzitako marrazkiak eta Arbizuko eskolako haurrek Palestinari buruz egindakoak erabiliz osatu zuten.

- Mundu osoan eskubide berberak: munduko beste herrialdeetako jendeen erretratuak eredu gisa hartuta, haurrek marraztutako erretratuz osatua.

- Sentimenduen liburuxka: haurrek adierazitako sentimenduekin zerrenda bat osatu zuten. Ondoren, bakoitzak Palestinako historiak sorrarazi dion sentimendua aukeratu zuen. Sentimendua marrazki bidez adierazi zuten, gainera. Guztien marrazkiekin liburuxka bat egin zuten.

- Olibondoari bisitaldia: Arbizuko San Joan ermitan palestinarren omenez landatutako olibondora joan ziren, palestinar banderekin eta pankartekin.

Ammar

Ammar haur palestinar bat da. Hura protagonista duen ipuina kontatu zieten Arbizuko Andra Mari Ikastolako Haur Hezkuntzako haurrei.

Ammarrek, bere historiaren bidez, Palestinari buruzko informazio osoa eman zien haurrei: historia, kokapena, beren aitona-amonek zituzten etxe motak, tankeek etxeak nola erauzten dituzten, kalera atera ezina, min hartzen dutela eta abar. Ipuina luzea da, testu labur eta argazki askokoa.

Ondoren, hainbat jarduera eta fitxa egin zituzten astebetez:

- Munduko mapan kokatu: Euskal Herria eta Palestina mapan kokatu zituzten. Alderaketak egin zituzten.

- *Palestina* hitzarekin jolastu ziren, hipotesiak eginez, irakurriz eta idatziz.

- Euskal Herria zer den, Espainia eta Frantzia aztertu zituzten, eta Euskal Herriko eta Palestinako mapak alderatu eta margotu zituzten.

- Palestinar hizkuntza eta idazkera ezagutu zituzten, haien alfabetoa. Haurrek beren izenak gure grafiaz eta arabiar grafiaz idatzita eraman zituzten Gabonetako karpitetan.

- Palestinar jakiak. Hainbat produktu palestinar dastatu zituzten: datilak, kuskusa, olibak eta abar. Jantzakera, musika eta dantza ezagutu zituzten, era berean. Elementu horiekin guztiekin antzerkia egin zuten.

- Eskolarekin harremana: Ammarrek kontatu zien eskolak suntsitzen dizkietela. Orduan, etxetik jostailutxo bana ekarri zuten, Mardako eskolara bidaltzeko. Gurasoek, beren aldetik, jantziak eta bestelakoak ekarri zituzten beren seme-alabek palestinarren berri eman zutenean.

DBHko ikasleek jostailutxoak bidaltzeko paketea egiten lagundu zieten. Haurrek bozeramaile bat aukeratu zuten, eta Arbizuko alkatearekin hitz egitera joan ziren udaletxera. Egun haietan ikastolan ikasitakoa adierazi zioten alkateari, eta eskatu zioten presatatu zuten paketea Mardako eskolara bidaltzeko.

Haurrek oso gustukoa izan zuten ipuina eta haren bidez, Ammarrek kontatu ziena, interesa agertu zuten Palestinan gertatzen denaren gainean eta zergatik gertatzen den jakin nahi izan zuten. Kezkaturik geratu ziren hango egoerarekin, eta, horregatik, pakete-txoan, beraien gustukoak diren gauzak sartu zituzten, gelatik hartuta: gometzak, margoak eta abar. Maiz eskatzen omen dute, oraindik ere, ipuina kontatzea.

Palestina

Denok berdinak, denok desberdinak!

Etxarri Aranazko (Nafarroa) ikastolan ikasturte guztietan gai sozialak landzen dituzte, justizia sozialaren ikuspegitik, modu berezian. Helburu behinena, beren testuingurutik kanpo dauden arazoez jabetzea da.

Orain arte, elikadura (anorexia, bulimia), talde indigenak, desagertze arazoak dauden etniak, Hirugarren Munduko herriak (haurren esplotazioa), eta abar landu dituzte, besteak beste. Horretarako, astebetean, ikastolako ikasle guztiak, HHTik hasi eta DBH arte, gai horretan murgiltzen dituzte, hainbat jarduerak direla medio; *Denok berdinak, denok desberdinak* kanpaina da.

Bestalde, ikasle artekoko kide zuzenaren bidez –txikien eta handien arteko harreman– lan asko egiten dute ikasleek.

2007/2008 ikasturtean, hain zuzen, elkartasuna izan zuten kanpainaren ardatz. Bi ideiak lotu zituzten, kide zuzen eta elkartasuna, hain zuzen ere. Gai horren barruan, Marda eta Arbizu herrien arteko senidetzea hartu zuten adibide gisa.

Elkartasuna, senidetzea eta Marda eta Arbizu arteko harremanaren gaia landu ondoren, Palestinaren gaia jorrazteari ekin zioten, edukiak eta jarduerak adinari egokituz.

Ikasle gazteenekin Palestinako kokagunea, ohiturak, sinbologia eta abar landu zituzten, eta gurekin alderatu zituzten. Palestinako musika, ipuinak eta poesiak ezagutu zituzten.

Injustizia sozialaren adibide gisa, *Handala* pertsonaia aurkeztu zuten.



Pertsonaia horrek palestinar iheslariak irudikatzen ditu. Gogoratu palestinar biztanleen erdiak, 7,2 milioi inguru, iheslari moduan bizi direla, nahiz eta Nazio Batuen Erakundeak haien gaineko ebazpenak eman dituen behin eta berriro, Israelek bere aldetik beste hainbestetan bete ez dituenak. Pertsonaia hori bizkarrez agertzen da, eta iheslariak itzultzen direnean emango omen du buelta. Egoera hori hemengoarekin alderatu zuten, *Handalak* zer esan nahiko ote zukeen hemen, eta gela gertatzen diren egoerak adierazteko egokia gertatu zitzaion.

Banderaren, ohituren, sinbologiaren kide zuzenaren egin zuten, eta gurekin alderatu ziren.

Goragoko mailetan hiztegia landu zen eta kontzeptuak definitu ziren. Ikasleek zekitena bildu, okerrak zuzendu eta, azkenik, denen artean definitzio egokiak osatu zituzten. Palestinako mapa ere aztertu zuten, Palestinaren bilakaera ezagutzeko; hau da, nola hasi

zen eta nola dagoen ikusteko.

Iheslari baten kontakizuna entzun ahal izan zuten, eta DBHko 2., 3. eta 4. mailakoekin Palestinako historiaren kronologia egin zuten.

Komunikabideetan Palestinari buruz agertutako prentsa artikulua gela ekarri, eta aztertu egin zituzten.

Euskaraz dakien iheslari palestinar batekari zuten ikastolara. Egun osobat egin zuten ikastolan, eta bertako haur guztiarekin egon zuten, HHTik hasi eta DBHko mailetaraino. Txikiei palestinarren bizitzeko modua, eskolei buruz eta hain ikasten dutenaz, grafia arabiarraz, haiek ez dituzten bokalez eta abarrez hitz egin zuten.

Handienekin, berriz, ordu arte ikasitakoa eta prentsa artikuluetan irakurritakoa egiaztatu zuten.

DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleek Juanma Sarasola idazle eta kazetariaren hitzaldi bana entzun zuten.

Kanpaina erakusketa batekin amaitu zuten; sortutako ekoizpenak izan ziren



ikusgai: azalpen testuak, mezuak, argazkiak, janari dastatzea, palestinar dantza eta musika, baita Askapena erakunde internazionalistak utzitako hainbat material ere.

Ikasleek oso gustura landu zuten gaia, gure eguneroko bizitzatik oso urrun geratzen bazaie ere. Etxarriko ikasleek Palestinako haurrekiko lortu zuten enpatiaren ondorioz, marrazkiak bidali zizkieten.

Etxarriko ikastolan, urtero *Karraka* izeneko ikuskizuna edo jaia egiten dute. *Karraka 09an*, ikastolan beren ikasketak amaitzera zihoazen DBHko ikasleek Palestinari buruzko lan hunkigarria eskaini zuten, elkartasun kanpaina egin eta hurrengo ikasturtean, irakasleen harridurarako eta gaiak barrua eragin zienaren lekuko.

Palestina, elkartasunaren bidea

Askapena erakunde internazionalistak unitate didaktiko bat prestatu zuen, Palestina eta haren egoera ardatz zituela. Unitate horretan, hainbat jarduera, ariketa eta proiektu egitea proposatzen da.

Unitatean hainbat kontzeptu lantzen dira: senidetzea, elkartasuna, solidaritatea, karitatea, okupazioa, baliabide naturalak, Palestina, estaturik gabeko herriak, Jerusalem, kultura aniztasuna, erlijioa, arabiarak, musulmanak, islama, euskara batua, Palestina historikoa, iheslariak, kokalekuak, mundu hebrearra, mundu judua, sionismoa, mundu israeldarra eta Nakba, besteak beste.

Jarduera hauek proposatzen dira:

- Senidetzea: Marda eta Arbizu herrien arteko senidetzearen testu zatien azterketa egitea.

- Mardaren deskribapena: Ariel kolonia juduaren izaera ezagutzea.

- Proiektua: argazkiekin eta gustuko musikarekin CD bat osatzea, eta Mardako eskolara bidaltzea aurkezpen gutun batekin.

- Palestinaren historia hurbila aztertzea.

- Iheslariak: kanporatuen egoera ulertu eta haien lekuan jartzeko ariketak egitea.

- Kanta palestinar bat: alderaketa Benito Lertxundiren "Nere herriko neskatxa maite" kantarekin.

- Bazkal dezagun: *falafela* mundu guztira hedatu den janari arabiarra da. Unitatean *falafelaren* errezeta ematen da, gelan egiteko.

- Ba al dakigu baserritarrez jantzen? Arte Hezkuntzako atalerako proposatzen da jarduera hori, gure jantzi tradizioaletan sakondu eta jantzi palestinarrek ezagutzea proposatzen da.

- Ipuin arabiarak: Magreb-Sahara eta Iraneko ipuinak aurkezten dira unitatean bertan, euskaraz eta arabieraz idatzita.

- Jarduera osagarriak: hainbat hitzaldi, DVDak, palestinar gaia duten abestiak (euskaraz ugariak dira), Interneten gaiari buruz dauden atarien ezagutza eta lanketa, eta abar.

- Musika aukeraketa: unitatean erabiltzeko hainbat abestiren audioak daude grabatuta CD batean.



joseba azkarraga

ELKARRIZKETA

HUHEZIKo irakaslea eta LANKIKo ikerlaria

“Kontua ez da zelan sortu eskola ona,
gizarte hezitzailea nola eraiki baizik”



joseba azkarraga

E

“Gizarte horren erreproduzio lanean jardutea estrategia kriminal batekin kolaboratzen jardutea izango litzateke kasik. Berba gogorrak dira, baina bizitzaren oinarriak kaltetzen gabiltza egunetik egunera, eta ikuspegi askotatik. Horregatik, sekula baino gehiago izan beharko du daukagun hori gainditzera deitutako hezkuntza eredu, ez dagoenaren erreproduzitailea

”

Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa liburuaren egilea dugu Joseba Azkarraga. HUHEZlko Lanki ikertegiaren eta Fagorreko Gizabidea Fundazioaren arteko elkarlana izan da liburua. XXI. mendeari begira gogoeta estrategikoa egin zuen Gizabidea Fundazioak, hezkuntzaren alorrean orain arteko lan ildoari jarraitu edo beste bide berri batzuk ireki erabakitzeko. Horretarako, Joseba Azkarraga fundazioko kideari txosten bat egiteko eskatu zioten. Txostena eztabaidatu, onartu eta, azkenean, liburu bihurtuta argitaratu dute.

Gogoeta estrategiko horrekin batera, beste gogoeta prozesu paralelo bat abiatu zuten modu batera edo bestera hezkuntzari lotutako zortzi lagun inguruk, Debagoiena bailaran. Horietako kide bat izan zen Joseba Azkarraga.

Bistakoa da atsegin duela gogoeta egitea. Horregatik sortu zuen Jon Sarasuarekin batera Lanki ikertegia, 2000. urtean. HUHEZI fakultatearen barruan dagoen eta gaur egun 14 kide dituen ikertegi honek badu gako hitz bat: autoeraketa. Eta, horren harira, mugimendu kooperatiboa, planetako Hegoaldearekin kooperazioa (ekonomia solidarioa eta hizkuntza gutxituen berreskuratzea) eta gizarte berrikuntza dira beraien lanaren ardatzak.

EHUn Soziologia eta Zientzia Politikoak ikasi ondoren, psikologiako ikasketa batzuk egin zituen, eta harreman handia eduki izan du Gizarte Psikologiarekin, bai prestakuntza aldetik eta bai ikerketa aldetik. 2006an doktoratu zen Soziologian eta, ordurako, HUHEZIn hasita zegoen eskolak ematen eta ikertzen. Gaur egun, han jarraitzen du, bi eremuotan eskolak ematen: hezkuntzaren soziologian eta gaur egungo gizarte aldaketan arloan.

Liburuaren gaia, beraz, ez da berria harentzat. Egunerori ari da hezkuntzaz, gizarte aldaketez, etorkizunaz... ikertzen, irakurtzen, gogoeta egiten, eztabaidatzen... Ongi hausnartutako ideiak dira, beraz, hurrengo orrialdeetakoak.



Hezkuntza krisian dagoela entzuten da, behin eta berriz, han eta hemen. Hala al da?

Asko berba egin da hezkuntzaren krisiari buruz, aspertzeraino. Hezitzailleen eta hezkuntzako profesionalen artean halako neke bat ikusten dut. Hezkuntza krisiarekin gatoz berriro. Gainera, hezkuntza krisia aipatzen denean, ondoan hezkuntza erreformatzeko ekimenak jarri ohi dira. Seguruenera, ez dago gizartean azken urteotan hainbeste erreforma izan duen beste arlorik. Eta erreforma batzuk, gainera, ez dira laguntzeko izan. Orduan, ulertzen dut askorentzat aspergarria izatea berriro hezkuntzaren krisiari buruz hitz egitea.

Baina, bai, hezkuntza krisian dago. Ez hezkuntza bakarrik, gizarte osoa baizik. Hezkuntza krisian dago, gizarte hau krisian dagoelako. Eta gizarte honek bizi duen krisia ez da edozeinakoa. Nik uste ez dela gehiegi esatea *krisi sistemikoa* bizi dugula, edo *zibilizazio krisia*.

Normalean, azken urteotan, krisi kontzeptua krisi ekonomikoa izendatzeko erabili izan da, baina krisia oraindik sakonagoa da, eta larriagoa. Krisi ekologiko latza bizi dugu, eta harenertzik zorrotzeta aldaketa klimatikoarena izango da, segur aski. Krisi energetiko handia datorkigu. Izan ere, gure zibilizazio industrialaren energia nagusia izan dena agortze bidean jarri da, energia fosil merkeen aroa agortzearekin, eta horrek ahalmen ezegonkortzaile itzela edukiko du. Eta, gainera, hori gutxi balitz, krisi sozial sekulakoa bizi dugu. Inoizko alde sozialik handieneko munduan bizi gara. Horri guztiari beste hainbat erants dakizkioke: bio-

niztasunaren krisia (seigarren iraungitze masiboa bizi dugu); krisi demografikoa (gero eta gehiago gara planetan); aniztasun kultural eta hizkuntzakoaren krisia (sekula ez dira hizkuntzako komunitateak desagertu orain desagertzen ari diren erritmoan); krisi soziokulturala (ez daukagu erreferente garbirik, ez eta etorkizun-ikuspegi ilusio-nagarririk); elikadura krisia (elikagai eta ur eskasia); eta krisi psikikoa (depresioa epidemia bihurtuta munduan, suizidioak gora...).

Beraz, gure mundu globalizatu hau krisi askoren bilgune moduko bat da, eta egokia da zibilizazio krisi bati buruz berba egitea. Uste dut hezkuntzaren krisiaz hitz egin daitekeela, baina, *zooma* askoz gehiago irekiz gero, aurrekaririk ez duen emergentzia globaleko egoera bizi dugu.

Egoera horren larria al da?

Bauman soziologoak metafora polita erabili du: gure zibilizazio hau hegazkin erraldoi bat da, supersonikoa, azken teknologiaz eraikitakoa. Zitzu bizian, abiada betean doa, eta bidaiari goazenok konturatu gara kabinan ez dagoela piloturik.

Uste dut irudi ona dela non gauden adierazteko, gure nora eza azaltzeko. Oso paradoxikoa da: alde batetik, inoiz baino gehiago dakigu, eta zientziaren arlo guztietan aurrerapauso galantak eman dira; beste aldetik, bizitzaren oinarri direnak suntsitzen ari gara, inoiz baino azkarrago. Hau da, nola da posible gero eta gehiago jakitea gure ekosistemei buruz, atmosferari buruz, gure gizarteari buruz, psikismoari buruz... , nola da posible gero eta gehiago jakitea alderdi horiei guztiei buruz, eta datuak metatzen ditugun abiadura berean suntsitzen jardutea bai ekosistemak, bai komunitatea, baita gure psikismoa ere? Iruditzen zait paradoxa handia dela.

Azken batean, trantsizio historikoa egin dugu. Gizarte aurrekapitalistak eta aurremodernoak "nik honekin nahikoa dut" esan zezaketen. Bazegoen nahikotasunaren nozioa, kategoria kultural hori erabilgarria zen, eta inda-



rra zuen. "Nahikoa daukat" esatetik "zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto" esatera pasatu ginen. Horixe iltzatu zaigu eremu psikikoan, sozialean zein ekonomikoan. Eta horren ondorioak zein diren ikusten ari gara: biosfera hankaz gora jartzen ari gara, egundoko alde sozial eta ekonomikoak sortzen ari gara, eta, ahitze bidean jarri dugu geure psikismoa bera.

Hori da daukagun gizartea. Beraz, lehenengo eta behin, hezkuntzaren krisiaz hitz egin aurretik, gure gizarteak bizi duen krisi erraldoiari buruz hitz egin behar da. Zeren hezkuntza, azken finean, sistema orokorrako baten barruko azpisistema bat da. Horregatik, aurrena sistema orokorraren krisiaz berba egin beharko genuke.

Zer eragin du krisi ekonomiko globalak hezkuntzan?

Azken hamarkadatan egundoko aldaketak gertatu dira ekonomia globalean eta ordena sozioproduktiboan. Garai fordista-tayloristan era konkretu bateko subjektua behar zen. Gaur egun, gure mundu sozioproduktiboak behar duen subjektua oso bestelakoa da. Ez dauka zerikusirik norbanako otzan, esaneko, ez parte-hartzaile harekin. Gaur egun oso bestelako subjektua eskatzen dute gure enpresa eta erakundeek: pertsona motibatua, parte-hartzailea, aplikatua bezain inplikatua, ekimenduna, sortzailea, autonomia, talde lanerako jarrera eta gaitasuna duena... Iniziatiba da hitz *totem* berria.

Beste subjektu bat eraiki behar da. Eta egin kontu hezkuntza sistema beti hor egon dela garai historiko bakoitzak

behar duen subjektua sortzeko. Ez da horretarako soilik egon, baina funtzio hori beti bete izan du.

Horregatik, eremu sozioproduktiboan gertatutako aldaketek eragin zuzena daukate hezkuntza prozesuetan. Zehatzago esanda, gure hezkuntza, erakundeetan gauza asko aldatzen ari dira subjektu berri hori sortze aldera: curriculumak (edukiak barik, gaitasunak landu behar), irakasleen prestakuntza, pedagogia aktiboen ezarpena, ebaluazio moldeak eta irizpideak, erakundeen diseinua, familiekiko harremana...

Hezkuntza krisia azaltzen duen beste arrazoirik ikusten al duzu?

XX. mendeak ikuspegi berria eman digu: konturatu gara hezkuntzari lotutako promesak ez direla bete. Modernitatearen aginduari jarraiki, hezkuntzak eraman behar zuen gizartea bide onetik. Hezkuntza funtzio ezin garrantzitsuagoa betetzera zetorren, ia epikoa: Ilustrazioren espirituak zioen gizarte modernoan hezkuntzak aterako gintuela ezjakintasunetik, miseria material eta moraletik, hark emango zigula aurrerabide material eta moralerako bidea, ongizatea... Eta ez da hala izan, edo ez uste zen neurrian. Konturatu gara gauzak askoz konplexuagoak direla, badugu modernitatearen anibalentziaren berri. Zenbait kasutan (Auschwitz), gizarterik aurreratu eta jantziak egin ditu izugarrikeriarik handienak. Orduan, galdera sakonak sortu dira: hezkuntzak bete al dezake horren garrantzi handia duen funtziorik? Are gehiago, ez al zen hezkuntza moder-

joseba azkarraga

E

“ Eskolak argi izan behar du ezin duela dena egin, mugatua dela. Beste batzuek sua piztu eta estrategia piromanoa jarraitu eta gero, eskolari eskatzen zaio suhiltzaile lanak egitea, maisu-maistrei eskatzen zaie gure garaiko heroiak izatea, jada sua ikaragarria denean ”

noa zuzen inplikatu Holokaustoan, izugarrikeria handi hartan? Garaiko hezkuntza sistemak modu zuzenean parte hartu zuen eldarnio totalitario hartan. Hor pitzadura sakona dago. Formazio askoz gehiago daukagu, baina horrek ez du esan nahi jakituria gehiago dugunik.

Nola ikusten duzu egungo gizarte eredua?

Ikuspegi kultural eta moraletik begiratuz gero, gizarte homogeenogoe-tatik gatoz. Adostasun sozial eta moral nahiko handia zuten gizarte batzuetatik gatoz, eta, testuinguru historiko haietan, argiago zegoen zer eta zelan irakatsi. Eta, gainera, gizarte modernoaren hastapenetan hezkuntza formala edo eskola bera zen ezagutzaren transmisio iturri ia bakarra.

Gaur egun, bestelako gizarteak dauzkagu, askoz ere heterogeneoagoak, aniztasun handiagokoak, polizentrikoak. Eta jada ez dago hain garbi zer eta nola irakatsi behar litzatekeen, zer balio transmititu behar liratekeen horrelako testuinguru historikoetan. Gainera, teknologia berriekin, eskola ezagutzaren igorleetako bat da, eta, beharbada ez da garrantzitsuena. Hor baitaude Internet eta teknologia berriak.

Ondorioz, modernitateari zegokion eskola eredua krisian sartu da, egiturazko krisian, ez azalekoan, geratzeko etorri diren fenomeno batzuen aurrean baikaude.

Zer iritzi duzu eskolaren eta familiaren arteko harremanari eta bakoitzaren funtzioei buruz?

Aldaketak gertatu dira sozializazio prozesuan. Familiak bete izan dituen funtzio klasiko eta historiko batzuk ez ditu lehen bezainbeste betetzen gaur egun, lehenengoz historian. Labaintze moduko bat gertatu da. Nabarmena da gure haurrak lehenago gelditzen direla hezkuntza erakundeen esku. Horrek dakarren guztiarekin. Sozializazio kontratu jakin bat nolabait hautsi egin da. Orainsu arte familia arduratzen zen haurren nortasunaren muina eraiki-

tzeaz, osatzeaz, eta haurrak eskolara hezigarritasun baldintza psikologiko eta material batzuekin heltzen ziren. Gaur egun, ordea, erakundeek hartu behar dute euren ardura pean, ez klasi-koa den bigarren sozializazioa soilik, baina lehenbiziko sozializazioaren zati hazkorra ere, orain arte familien esku egon dena.

Eskolak, eta hezkuntza erakunde formalek, oro har, erronka itzela dute. Oso desafio eta ardura potoloak daukate eskuartean, lehen ez zeuzkatenak: ez soilik gure haurren garapen intelektuala, baina emozionala, afektiboa eta nortasunaren muina osatzearena ere.

Beste alde batetik, beste sozializazio eragile batzuk, era guztietako pantailak esaterako, indar aparta hartzen ari dira. Eta pantaila horiek sarritan ez daukate inolako hezkuntza diseinurik. Hau da, eskolak gehiago egin behar du jarduerarako tarte txikiagoarekin, lehia-kide gogorrek atera baitzaizkio testuinguru historiko berrian.

Aipatutako arazoak edo krisiak konpontzeko eskatzen zaio askotan eskolari. Errealia al da hori eskatzea?

Ez, horrek berak krisian betikotzen du eskola, funtzioen gainkarga modukoa zerbait bizi duelako. Aski da irratia piztea: edozein solaskidek arazo sozial bat identifikatu, eta, berehala, horren konponbidea hezkuntzan dagoela esango du. Eta pixka bat gehiago finduz, ez du aipatuko hezkuntza osorik hartuta, eragile guztiak aintzat hartuta (eskola, familia, hedabideak...); aitzitik, eskolak ardura berezia daukala esango du, eta hainbat prozedura jarri beharko lituzkeela arazo hori bideratzeko.

Adibidez, har dezagun elikadura arazo gero eta larriagoa (anorexia, bulimia, umeen gizentasuna...). Sistema orokor honen barruko azpisistema batzuek euren funtzioa utzi egin dute. Esan nahi dut familiak berak ez dituela lehen bezala transmititzen elikaduraren arloko jarraibide batzuk. Jateko denborak ahitu egin dira, eta familia ba-



ruko denborak desartikulatu. Gaur egun, sarri bikoteko kide biek lan egiten dutenez, konplexuagoa da lehengo elikadura tradizioei eustea. Etena dago.

Horrez gain, beste azpisistema batak, hedabideenak, etengabeko presioa egiten du, haur eta gazteen kontzientziak kolonizatuz edertasun irudiekin eta gorputz-eredu perfektuekin. Hau da, gaurko haur eta gaztetxoak idealtasun handiagoarekin estutzen ditugu egunero.

Ondorioz, elikadurari lotutako nahaste batzuk sortzen dira, eta gizarte jakin batek gauzak bide horretatik errotatu dituenean, eskolari esaten zaio: "Orain, egin zaitez zu horren kargu". Hau da, azpisistemetako bati eskatzen zaio sistema osoaren kontraesanak konpontzea. Piloturik gabeko hegazkin horren *airbaga* izatea, nolabait.

Konponbide guztiak hezkuntzatik datoz, eta zehatzago esanda, eskolatik. Bide batez, beste hezkuntza eragile batzuek, eskuak garbitzeaz gain, egunero egur gehiago botatzen diote suari. Konponbide zaileko egoeratan sartzen gara.

Eskolak argi izan behar du ezin duela dena egin, mugatua dela. Beste batzuek sua piztu eta estrategia piromanoa jarraitu eta gero, eskolari eskatzen zaio suhiltzaile lanak egitea, maisu-maistrei eskatzen zaie gure garaiko heroiak izatea, jada sua ikaragarria denean.

Nola ikusten dituzu irakasleak eskolaren gainkarga horren aurrean?

Eskolaren motxila funtzioz eta zereginenez betetzen joan den heinean, irakasleen estatusa behera etorri da. Badi-rudi irakasleek begirune soziala galdu egin dutela. Hau da, gehiago eskatzen zaie, eta gutxiago eman (ez naiz soldataz ari).

Gure lehengo herrietan alkatea zegoen, autoritate politikoa; medikua zegoen, autoritate zientifikoa; abadea zegoen, autoritate espiritual-erlijioso; eta maisua edo maistra zegoen, hezkuntza autoritatea, aurrerapenaren sinboloa.

Gaur egun, estatus hori aldatu egin da. Alde batetik, gurasoek maila kultu-

ral jasoagoa dute, hezkuntza eta kultura kapital handiagokoak dira, eta, ondorioz, irakasleak ez dira lehengo autoritate eztabaidaekin haiek, zorionez. Baina baditu bere albo kalteak, batez ere hezkuntzako gaurko profesionalentzat.

Beste alde batetik, bada kalean sarritan erabiltzen den diskurtsoa: lehen eskolan kokotekoa jaso gero, etxera joan eta, ezer galdetu gabe, beste bat gurasoek. Gurasoen eta irakasleen artean halako itun inplizitu bat zegoen, belaunaldi hitzarmena, nolabait. Itun hori hautsi egin da eta gurasoen eta seme-alaben arteko itunak sortu dira: gurasoak kontu eske joaten dira eskolara. Eta, helduen arteko ituna hautsita, irakasleak babes gutxiagorekin sentitzen dira gerta daitekeenaren aurrean.

Bada gehiago: irakasleek ikasleen aurrean autoritatea galdu dute, neurri batean behinik behin, arlo batzuetan eredu imitagarri izateari utzi diotelako. Adibidez, gehienetan ikasleek askoz hobeto erabiltzen dituzte teknologia berriak. Are gehiago, maiz, gaitasun handiago dute informazio gainkargari eta testuinguru historiko honen konplexutasunari aurre egiteko.

Krisia orokorra da, zibilizazio krisia aipatu duzu. Baina, zooma itxi eta hezkuntzara mugatuta, nork hasi behar du horri buelta ematen, eta nondik?

Konplexua da oso. Baina, hasteko, zera argitu behar da: hezkuntzari buruz pentsatzen hastea geure gizarteari buruz pentsatzen hastea da. Hau da, kontua ez da zelan sortu eskola ona, baizik eta nola eraiki gizarte hezitzailea. Izan ere, hezkuntza ez da erakunde formal bati eta profesio jakin bati dagokion zeregina (sekula ez da izan, baina orain inoiz baino gutxiago). Hori ere bada, jakina, baina, aldi berean, gizarte osoaren funtzioa da: eskolarena, familiarena, hedabideena, herri mugimenduen, enpresena, politikariena... Esapide afrikar batek dio haur bat heztea tribu osoaren lana dela. Oso garrantzitsua iruditzen zait hori argi edukitzea.

joseba azkarraga

E

“Gaur egun irakasle lana ez da erraza. Eskakizun psikiko handiko lanbidea da eta, ikuspegi horretatik, ondo zaindu beharreko alderdiak daude. Ildo horretatik, irakasleen esperientzia lantegiak eraiki daitezke: gune eta une batzuk irakasleen zaintza horretarako, desintoxikazio emozionalerako, esperientziak partekatzeko, bai onak eta bai txarrak...”

”

Nolakoa izan beharko luke eskolak gizarte hezitzaile horretan?

Tribu guztiak arduratu behar badu heziketaz, eskolak argitu egin behar du bere lekua eta mugak zein diren. Jakin egin behar du, baita ere, muga horiek azaltzen eta esaten: “Gu erakunde mugatua gara eta honaino hel gaitzke”. Eta jakin egin behar du gizarteak jartzen dion gainkargaren tranpa salatzen, tranpa baita, azken finean. Normalean, eskolak eta hango hezitzaileek, bokazioz eta misio historikoz, joeraxoa eduki dezakete horrelakoak esateko: “Bai, hau ere geure gain hartuko dugu”. Nire ustez, ordea, eskolak arrakasta izan nahi badu, ezinbestekoa da une historiko honetan ondo zehaztea zein diren bere ahalak eta zein ez. Eta kolaborazioak serio planteatzea beste eragile batzuekin, bai familiekin, bai hedabideekin, baita gizarteko beste eragile batzuekin ere. Konplexurik gabe planteatzea heziketa oso gauza konplexua dela, denen artean egitekoa, eta bestela porrota gauza segurua dela. Aspaldiko egitasmoa da, badakigu, baina inoiz baino zentzudunagoa. Izan ere, ezagutzaren gizartean sekula baino nabarmenagoak dira bi hauek: ez dago hezkuntza efekturik ez duen giza ekintzarik (gizarteko gune guztiek hezten dute, modu batean edo bestean); eta bizitzan ez dago hezkuntza efekturik behar ez duen unerik (hori oso argia da ezagutzaren gizartean).

Nola ikusten dituzu beste eragileak. Hedabideak, esate baterako, prest al daude ardura hori hartzeko?

Oraindik oso urruti daude hortik. Sozializazio prozesuan gero eta eragin handiagoa dute. Bideo-jokoena, esate baterako, une honetan industria kulturalaren negozioerik oparoena da, zinemagintzaren aurretik dago. Horrek adierazten digu zenbaterainoko eragina duen. Era berean, produktu horiek ez dira diseinu pedagogiko batean ardatzen, gehiegitan ez daude pentsatuta hezkuntzaren ikuspegitik eta ez



du-
te

planteatzen

zelan lortu haurraren edo gaztetxoaren hezkuntza eta hazkuntza ona (lehentasunak ez dira horiek, behinik behin).

Nork esan beharko lieke euren produktuek ikuspegi hezitzailea eduki beharko luketela?

Denok eduki beharko genuke zeresana. Edonola ere, familien aldetik eskaerak oso zorrotzak izan beharko lukete. Azken batean, familia dira industria kultural horren eta haurren arteko bitartekariak. Familiek erosten dituzte. Familiek badakite haur bakoitzak gelan Internet, telebista eta era guztietako pantailak dituela, eta horien eragin eta erabilera egokia zein den jakin behar lukete. Hortaz, familia bakoitzak horren inguruko hausnarketa serioa egin beharko luke.

Familiaren aldetik presionatuta sentitzeaz gain, ikuspegi politikotik ere presionatu egin beharko litzateke industria kultural hori. Uste dut politikaren bidetik pauso batzuk eman beharko liratekeela, hori guztia beste modu batera arautzeko. Baina hortxe dago gure munduak bizi duen arazoetako bat: negozio mundua arautzeko politikaren ezintasuna.

Material eta hedabide alternatiboak (asmo hezitzailedunak) sortzea litzateke beste egiteko bat.

Familiak ardura batzuk eskolaren esku utzi dituela esan duzu lehen. Zer-nolako funtzioa eduki beharko luke familiak eskolan, gizarte hezitzaile batean?

Familiak eginkizun batzuk berreskuratu beharko litzatekeela iruditzen zait. Horretarako, baldintza batzuk sortu beharko dira, noski. Ez ditugu beste

herrialde batzuetan dituzten baldintzak haurrak zaintzeko. Esadazu gizarte batek haurren hazkuntzarako zein baldintza sortzen dituen, eta esango dizut gizarte hori ona den, ez den horren ona edo txarra den. Ikuspegi horretatik, gure gizarteak gizarte atzeratua da, eta atzera egin duena. Oso modu kritikoan begiratu behar genioke gure egoerari. Kezkatzekoa da lau hilabeteko haur bat haur eskolan aparkatzea eta ia egun osoa igarotzea hezkuntza erakunde batean, nahiz eta erakunde horiek gero eta hobeto diseinatuta egon. Ia-ia ez dago diseinu on posiblerik horri ganoraz erantzuteko. Erabil ditzagun haur eskolak modu arrazional eta zentzuzkoan.

Dena dela, ezin da orokortu, ezin da esan familiak seme-alaben heziketaz ez direla arduratzen. Denetik dago.

Irakasleen prestakuntzan ikusten al duzu aldaketa edo berrikuntzaren beharrik?

Alde batetik, ohiko prestakuntza dago, hots, gaur egun irakasle ona izateko zer gaitasun eduki behar liratekeen: psikologia ebolutiboaz jakin behar luke, gertaera politiko modura ulertu behar luke hezkuntza, irakasteko eta ikasteko prozesuetan prestatu behar luke, alderdi metodologiko eta didaktikoetan ere bai, eta abar luze bat. Horixe da gaur egungo ikasketek eskaintzen dutena, hain zuzen, nahiz alderdi soziologikoz eta politikoz herren samar ikusten ditudan.

Baina, bestetik, beste era bateko prestakuntza edo zaintza behar da: irakasleen zaintza integrala, nolabait. Seguraski, bere burua zaintzen ez duen erakunde batek, lantzean behin bere barrua bokazioz busti eta orekatzen ez duen irakasleak, ezingo du ongi zaindu beste inor. Hori hartzen dugu premisatzat.

Denok dakigu gaur egun irakasle lana ez dela erraza. Eskakizun psikiko handiko lanbidea da eta, ikuspegi horretatik, ondo zaindu beharreko alderdiak daude.

Ildo horretatik, irakasleen espe-



rientzia lantegiak eraiki daitezke: gune eta une batzuk irakasleen zaintza horretarako, desintoxicazio emozionalerako, esperientziak partekatzeko, bai onak eta bai txarrak...

Nahiz eta pedagogia esperientzialak indarra izan, irakaslearen irudiak funtsezko izaten jarraitzen du, eta garrantzi handia du figura horren zaintza emozionalak, psikikoak eta afektiboak. Uste dut garrantzitsua dela, prestakuntza teorikoaz aparte, era horretarako zaintza integrala, eta nik ez dut ikusten horrelakorik gaur egun.

Nerabeak zaintzeari eta hezteari garrantzi handia ematen diozu.

Bai, subjektuaren eraikuntzan funtsezko bi une daude bizitzan: bizitzako lehen urteak eta nerabezaroa.

Gaur egun, ikuspegi psikotik, askoz zorrotzagoa den gizartean bizi gara. Identitatea norberak banaka eraiki behar duen zerbait da, ez emanda datorrena, garai batean bezala. Horrez gain, bada idealtasunaren etengabeko transmisio mediaticoa ere: edertasuna, estatua, arrakasta, boterea, distira egokoa... Norbere *nian* eraikuntza distiratsura animatzen gaituzte egunero. Uste dut ikuspegi horretatik tentsio psikiko altua eragiten duen gizartean bizi garela. Iruditzen zait gizarte horrek beste garai batzuetan baino gehiago eskatzen duela, baina gutxiago eman. Hau da, zerekin egin dute topo gure gazteek? Krisian dagoen gizartearekin, norbere identitatea eta bizi-proiektua eraikitzeke krisian dauden osagaiekin: lana krisian dago, ideologia moderno-

ak krisian daude, ongizate estatua krisian dago, familia krisian dago, hezkuntza krisian dago... Zer ez dago, gaur egun, eraldakuntza prozesuan edo, gutxi-asko, nolabaiteko kinkan?

Beraz, gazteek desinstituzionalizazio prozesuan dagoen gizarte batekin egin dute topo. Hori kontuan hartuta, uste dut ez dela erraza gazte izatea gaur. Ikuspegi materialetik esne-mamitan eduki ditugu, baina ikuspegi psikosozialetik hauskorragoak dira; askoz eskaera handiagoei aurre egin behar die eta identitatea eraikitzeke material prekarioagoak ditu belaunaldi horrek.

Egoera hauskor horretan, gazteek hiru irtenbide faltsu hauta ditzakete nortasuna eraikitzeke lanetan (baita nagusiek ere):

1. Infantilizazioa: batzuek biktima papera hartzen dute, kulpak inori erantsiz; konplexutasunari aurre ez egiteko modu bat da.

2. Segurtasuna emango dieten talde itxietan gotortu daitezke (tribu hiritarak, esaterako).

3. Identitatea eraikitzen ahalegintzen dira, horretarako objektu komertzialak erabiliz. Merkatuak zuzendutako txotxongilo bihurtzen dira.

Eskolak nerabezaroari arreta berezia eskaini behar lioke, eta identitatearen eraikuntza modu finean zaindu (beste batzuekin batera). Bestela, merkatuak egingo du. Gaur merkatuak zuzentzen du, hegemonia handiz, gazteek daukaten autonomia gosea eta nitasuna eraikitzeke beharra. Kolonizatze horigero eta goiztiaragoa eta masiboagoa da, gainera.

joseba azkarraga

E

“Tribu guztiak arduratu behar badu heziketaz, eskolak argitu egin behar du bere lekua eta mugak zein diren. Jakin egin behar du, baita ere, muga horiek azaltzen eta esaten: “Gu erakunde mugatua gara eta honaino hel gaitzke”. Eta jakin egin behar du gizarteak jartzen dion gainkargaren tranpa salatzen, tranpa baita, azken finean”

Zer egin dezake eskolak?

Esate baterako, konpromiso soziala landu, konpromiso sozialean hezi gazteak. Hau da, bizi-ibilbide zentzudunakerakutsi, edo konpromiso sozialean ardaztu diren bizi-ibilbide batzuk erakutsi, eredu modura. Kontsumismoa, ospea, niaren gorespina... dira eredu hegemonikoak; bada, eredu hegemoniko horien aurkakoak diren beste batzuk aktibatu: ikusarazi bizitza askoz aberatsagoa dela besteekiko konexioan eraikitzen denean, baita konpromiso sozialaren bidetik eraikitzen denean ere... Debagoienan Gazte Eskola sortu dugu asmo horrekin, besteak beste. Ohiko egozentrismo materialistatik eraiki ez diren eredu batzuk eskaini beharko lirateke, beste irudi erakargarri batzuk, eredu zentzudunak (zentzuz hornitzen gaituztelako hitzaren bi adieratan: *esanabiez* eta *norabidez*).

Etorkizuneko eskola horrek zer izan behar du, erreproduzitzailea ala eraldatzailea?

Hezkuntza, oro har, eta eskola, zehatzago esanda, ez litzateke ardaztu behar daukaguna erreproduzitzeko lanean, inoiz baino argiago ikusten da hori.

Segur aski hori izango da hezkuntza krisiaren beste ertz bat: une honetan, sistema honen erreproduzitzailea ari da batez ere, eta egokitzapenak izugarritzko indarra eskuratu du. Eskola, neurri handi batean, horregatik dago hain asaldatuta, etengabe aldatzen ari den gizarte horretara egokitzeko urgentzia eta mandatu historikoari men eginez ari delako. Egokitu, egokitu, egokitu, hain exijentea den kanpo mundu horretarako jendea prestatu. Ostera, iruditzen zait fase historiko honetan apalduta gelditu dela alde eraldatzailea, emantzipatzailea, humanizatzailea.

Kontua da, etorkizunari begira, oreka hori aldatu egin beharko genukeela denon artean, hasieran esandakoagatik: gure garapen ereduak etorkizunik eskaintzen ez badigu, biziaren



mantenurako hain kaltegarria bada, gizarte horren erreprodukzio lanean jardutea estrategia kriminal batekin kolaboratzen jardutea izango litzateke kasik. Berba gogorak dira, baina bizitzaren oinarriak kaltetzen gabiltza egunetik egunera, eta ikuspegi askotatik. Horregatik, sekula baino gehiago izan beharko du daukagun hori gainditzera deitutako hezkuntza eredu.

Horrez gain, argi dago gizarte horren azpisistemetako bat dela hezkuntza, eta gizarte horren beharrianei erantzuteko dago, neurri handi batean. Baina azpisistema horrek badu bere logika propioa, batzuetan gizartearen logika orokorrearekin bat ez datorrena. Gizartearen zerbitzura egoteaz gain, autodeterminatzeko gaitasuna izango duen norbanakoa eta komunitatea sortzean datza kontua, eta sarriegi bi zeregin horiek ez datoz bat. Eta hor, jakin egin beharko luke bere logika propio hori defendatzen, eta baita gotortzen ere, nahiz bat ez etorri ekonomia globalak edo gizarteak behar duenarekin.

Jada badakigu irakasle ona ez dela ezagutzaren transmisioa ongi egiten duena soilik; ez eta esperientzia egokiak diseinatzeko dakiena ere, haurrak eta gazteak ulermenera irits daitezkeen. Batez ere, oinarriko bizi hautuak egiten laguntzen duena da, nire ustez, irakasle ona. Eta Arizmendiarieta horrelako tipo bat izan omen zen.



HERRI
URRATS

SENPERE 2011

laku bat munduan

MAIATZAK 8 SENPERE

Hizkuntzen garapena eskolako errealitatean SAREAN Elkartearen hausnarketa

Gaur egungo gizartean, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da hizkuntzen inguruko eztabaida. Atzerriko hizkuntzan (ingelesa gehienetan) dugun gaitasuna oso txikia dela esaten da, eta Europako Parlamentuak ematen dituen aholkuei jarraituta, Hezkuntza Administrazioak, ikasleek ingeles arloan duten gaitasuna hobetzeko asmoz, proposamen bat egin die ikastetxeei.

Argi esan behar da ikastetxe publikoetan denok gaudela hizkuntz gaitasunak hobetzearen alde, bai atzerriko hizkuntzan baita ditugun bi hizkuntza ofizialetan ere, eta aspalditik ari gara hori lortzeko gogoeta egiten, prestatzen eta hobetzeko esperimentuak egiten. Oso eremu garrantzitsua dela iruditzen zaigu, eta, horregatik, uste dugu hizkuntz gaitasunak hobetzeko hautatzen dugun erak hausnarketa sakonaren ondorio izan behar duela, ikastetxeko errealitatean oinarrituta beti. Prozesu horretan nolabait laguntzeko, SAREAN Elkarreak mahai gainera ekarri du gaia XXIX. jardunaldietan.

Eleaniztasuna, etorkizunari begira dugun erronka

Jardunaldiaren lehen zatian, “*Eleaniztasuna: Zergatik? Noiz? Nola?*” izenburupean, SAREAN Elkarteko talde-dinamizatzaileak hainbat aditurren iritzien eta ikerketen bilduma aurkeztu du.

Ondoren, ekitaldiaren zatirik garrantzitsuen egin da, hau da, lan taldeen jarduna. Jardun horretan, Topaketeko partaideek, Hezkuntza Sailak egin duen proposamena eta eskola publikoetan dugun egoera aztertzei aukera izan dute; era berean, eleantiztasunaren bidetik aurrera egiteko iradokizunak egin dituzte. Hona hemen eztabaidan azpimarratu diren puntu nagusiak:

- Denok onartzen dugu etorkizuneko gizartean beharrezkoa izango dela eleantiztasuna izatea. Beraz, Eskola Publikoak ikasle eleantiztunak izateko prestakuntza egin behar du, eta helburua lortzeko bideak sakon aztertu ondoren erabakiak hartu behar ditu.

- Behar-beharrezkoa da eskola publikoetako errealitate askotarikoa kontuan hartuko duten ikerketa gehiago egitea.

- Eskolan eleantiztasuna bultzatzeko irakasle eleantiztunak behar ditugu. Gaurko irakasleak prestatzeaz gain, irakasle eskoletan kontuan hartu behar dute etorkizuneko irakasleen prestakuntzan gaitasun hori lortu behar dela.

- Herritar eleantiztunak lortzea ez da eskolaren lana bakarrik; komunikabideen zeregina, administrazioen elkarlana eta familien inplikazioa osaga-

riak eta guztiz garrantzitsuak dira.

- Hezkuntza Sailak egin duen proposamenaren inguruan ondoko iritzia jaso dira:

- Ez dira alde aurretik ikastetxeak kontuan izan, eta proposamena heldu denean ez da astirik egon aztertzei, zalantzak argitzeko eta planifikatzeko.

- Proiektuan parte hartzeko baldintzen alorrean:

- * Ikastetxeetako maila bereko ikasle guztiak sartzeko aukera ez izatea ez da egoki ikusi, ikasleen arteko desberdintasun arriskutsuak sor daitezkeelako.

- * Proiektuaren jarraipena ziurtatzeko, beharrezkoa da irakasleen iraunkortasuna, baina baldintza hori gure ikastetxeetan sarritan betetzen ez denez, ezinbestekoa da egoera horri irtenbidea topatzea.

- * Ikastetxe bakoitzaren hizkuntz egoerari hobeto erantzuteko, egokiago ikusten da denboraren banaketan malgutasunez jokatzeko.

- LHko 4. mailan arloren bat atzerriko hizkuntzan emateak sortzen dituen zalantzak:

- * Ikasle askorentzat euskara ikasteko aukera bakarra eskola da.

- * Egindako ebaluazioetan agerian geratu da zailtasunak daudela euskarazko maila ona lortzeko.

- * Ikastetxe askotan, euskara hobetzeko duten beharra ikusirik, ez da egoki ikusten euskara orduak murriztea eta gaztelaniazko orduak gehitzea, ondo ezagutzen baitute hizkuntza hori.

Eleaniztasuna eskoletan, arrazoi pedagogikoetan oinarritutako erabakia

XXIX. jardunaldietako partaideek, kalitatezko eleaniztasunaren bila, eskaera hau egiten diete Hezkuntza Saileko arduradunei:

Beste hizkuntzak bultzatzeaz gain, euskararen normalizazioaren alde benetako apustua egin dezatela, eta horretarako behar diren baliabideak erabil ditzatela:

- Ikerketak egin.
- Euskararen erabilera bultzatu.
- Ikastetxeetan hiru hizkuntzen gaitasunak hobetzeko dauden esperientzia onak ezagutu, indartu eta zabaltzeko lana egin.
- Ikastetxeei autonomia eta lagun-

tza emanez, haienezagarrien arabera-ko Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua garatu.

- Irakasleen prestakuntza indartu eta Irakasle Eskoletan ikasle eleaniztunak prestatu.

- Ahozko komunikazioak duen garrantzia aitortzen laguntzeko baliabideak eman: talde txikiak egiteko, ingelesez hitz egiteko irakasle laguntzailerak...

Amaitzeko, Administrazioari biziki eskatzen diogu gai garrantzitsu honi heltzeko abiapuntu pedagogikoak erabil ditzala.

Elkarlana, Eskola Publikoaren proiektuen oinarria

Jardunaldiak amaitzeko, Hezkuntza Saileko ordezkariak izan genituen.

Marian Ozcariz Sailburuorde andreak Hezkuntza Sailak aurkeztu duen proposamenaren inguruko azalpenak eman zituen:

- Deialdiaren arrazoia.
- Proiektuaren ezaugarriak.
- Etorkizunerako asmoak.

Sailburuorde andreak Topaketako partaideek egindako hausnarke-taren ondorioak ezagutzeko interesa azaldu zuen, eta etorkizunari begira proposamenak aztertzeko konpromisoa hartu zuen.

Amaitzeko, Francisco Luna jaunak, ISEI-IVEIko zuzendariak, hirueletasuna bultzatzeko proiektuaren ebaluazioa nola egingo den azaldu zuen.

XXIX. jardunaldietan bildutako irakasleek argi utzi zuten eleaniztasuna bultzatzeko Eskola Publikoan egin den lana, eta etorkizunari begira jarraitzeko borondate osoa dagoela adierazi zuten. Bide horretan, Hezkuntza Sailaren eta ikastetxeen arteko elkarlana faktore garrantzitsua da, eta SAREAN Elkarteak horren aldeko konpromisoa hartu du. ●



SAREAN elkarteak Leioako Unibertsitatean egin dituen XXIX.Topaketak.

Euskararen kontseilua

Euskararen ezagutza berma dadin beharrezkoa da euskara curriculumeko ikasgai guztietan lantzea

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak antolatuta hezkuntza arloko jardunaldiak egin ziren abenduaren 17an Donostiako Miramar jauregian. *Euskara biziago ikastetxeetan hizkuntza-normalizaziorako proiektuen bidez* goiburupean egin zen jardunaldian, hizkuntza-normalizaziorako hainbat proiektu aurkeztu ziren. Bestalde, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Neus Sanmartí parte hartu zuen. Jardunaldian, ideia bat nabarmendu zen bereziki: **euskararen ezagutza curriculumeko gai guztietan euskara inplementatuz etorriko da. Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok azaldu zuenez, "ez da nahikoa hizkuntza bat curriculumeko ikasgai izatea hizkuntza hori eskuratzeko. Gainontzeko ikasgaiak ere kontuan hartu behar dute hizkuntzaren irakaskuntza".**



Neus Sanmartí BUAKo irakaslea eta Paul Bilbao Sarria Kontseiluko idazkari nagusia.

Idazkari nagusiak, Paul Bilbaok, Kontseiluak ikasle guztiak euskaldun eleaniztunak izateko eginga duen proposamena aurkeztu zuen. Horren helburu nagusia, derrigorrezko irakaskuntzak ikasle euskaldun eleaniztunak sortzea da, 16 urtekin euskaraz gutxienez B2 maila egiaztatzea, alegia.

Paul Bilbaok, Kontseiluak egin duen proposamenaren ardatzen berri eman zuen bere hitzaldian. Besteak beste, zera aipatu zuen: "ikastereduak gainditzeko beharrezkoak diren erreforma guztiak sistema bera aldatuko duen lege baten barruan kokatu behar dira bazterrean utziz dekretu bidezko erreforma arinak". Hezkuntza sistemaren erreformaren helburuaz ere hitz egin zuen Bilbaok eta "euskaldun eleaniztunek osatutako Euskal Herria lortzeko bidean belaunaldi berriak euskalduntzea" izan behar duela aipatu zuen. Bestetik, eskolak euskalduntzean bere funtzioa betetzen badu ere, es-

kola eta bere ingurune soziolinguistikoaren arteko harremana ere kontuan izan behar dela adierazi zuen. Irakasle-riaren prestakuntza, gainontzeko langileen paperaren inguruan, etorkinen euskalduntzeaz... ere hitz egin zuen Paulek. Azkenik, hizkuntza-politika berriak izan beharko lituzkeen ezaugarriak ere azaldu zituen. Ildo horretan, hizkuntza-politikak administrazio guztiak hartu behar lituzkeena izan beharko lukeela aipatu zuen, helburu eta epe zehatzak izan behar dituen, baliabidez ongi hornitua.

Bestalde, aurten ere liburua argitaratu du Kontseiluak eta berau aurkeztu zuen Bilbaok jardunaldian. *Eskolatik abiatuta euskararen erabilera areagotzeko zenbait programa* izenburua du argitalpenak. Eta izenak dioten moduan, hainbat programa aurkezten dira, eskolatik abiatuta, baina ez soilik eskolaren eremuan, euskararen erabilera gehitzea ahalbidetuko dutenak.

Bost ikastetxeren esperientziak

Bost ikastetxeetan garatzen ari diren programen berri eman zen jardunaldian. Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin garatzen ari dira programa horiek beste hainbat ikastetxetan. Elhuyar Aholkularitzako Idoia Aldekoak eta Olatz Estensorok egin zuten horren aurkezpena. Olatz Estensorok, duela 20 urte enpresetan hizkuntza normalizazioa lantzen hasi zirenetik hezkuntza eremura iritsi arte egindako bidea azaldu zuen. Hainbat erakunderekin lan egin dute 2004tik, ikastetxeen esparruan hasi zirenetik; hala nola, EAEko Hezkuntza Sailarekin, Nafar Gobernu-ko hezkuntza atalarekin eta Euskal Herriko Ikastolekin. Iaz, Ulibarri programan zeuden ikastetxeek beren hizkuntza-proiektuak berriro behar zituztela eta, haietako 27 ikastetxetan aholkularitza lanetan eta laguntzen aritu ziren.

"Gogoeta prozesua ikastetxea osatzen duten guztiekin batera egitea da egokiena. Guztiok elkarrekin lan eginda, elkarrengandik ikasteko aukera daukagu eta. Eraldaketa-prozesua denez, parte hartzen dutenen jarrera aldatzea bilatzen da", azaldu zuen Elhuyar Aholkularitzako Idoia Aldekoak. Eraldaketa prozesuak parte-hartzaileak izan behar direla ere aipatu zuen Aldekoak. "Pertsonen bizipenetik abiatu, baina eraikuntza kolektiboa oinarrian. Taldeak erabakitzen du egin behar den bidea bera".

Bost ikastetxeetako esperientzien berri eman zuten, bertan zuzenean parte hartzen ari diren ikastetxeetako kideek; hala nola, Altsasuko institutuko Juantxu Zabalak, Zamudioko herri-ikastetxeko Belen Melladok eta Beatriz Ugartemendiak, Orioko Zaragueta herri-ikastetxeko Marije Azkuek, Beasaingo Andramendi ikastolako Arantza Sarriegik eta Tolosako Hirukide ikastetxeko Joseba Antxustegietxartek eta Maite Etxaberrik.



Elhuyarren aholkularitza izan duten bost ikastetxetako ordezkariak

Altsasuko institutuko Juantxu Zabalak azaldu zuenez, beraien kasuan, irakasle talde bat izan zen horrekin hasi zena. Hasiera batean hamar lagun hasi ziren baina Zabalak azaldu zuenez, "konturatu ginen soilik guk ezin genuela gauza askorik egin. Inplikazio handiagoa behar genuela ikusi genuen eta baita baliabideak ere". Udalaren dirulaguntza bati esker hasi ahal izan ziren hori lantzen, esan zuenez eta hari esker jaso zuten Elhuyar-eko prestakuntza. Taldea osatu eta lanean hasi ziren ondoren.

Zamudioko herri-ikastetxeko zuzendari Belen Melladok "Ikasi eta gozatu euskaraz: irudimenezko bidaiak" deitzen den euren proiektua aurkeztu zuen. Proiektu hori da eskolaren motorra Melladok azaldu zuenez. Joan den ikasturtean hasi ziren Elhuyarrekoekin lanean. Ikastetxe bereko Beatriz Ugartemendiak azaldu zuen ikasturte bakoitzean bi bidaiak planteatzen dituztela jolas moduan, ikasleek egin ditzaten, frogak egiten joaten dira eta bide horretan hizkuntza zein euskal kultura lantzen dituzte.

Orioko Zaragueta herri-ikastetxeko Marije Azkuek eman zuen euren ikastetxean garatzen ari diren proiektuaren berri. Duela bi urte abiatutako proiektua da beraiena. Proiektua abiatu zutenean, eremu euskalduna izanik ez zuten horren behar handia ikusten, baina gerora, berriz, egoera aldatu egin da, etorkinen etorrerarekin, eta une honetan proiektuak duen garrantzia azpimarratu zuen. "Gaztelania dutenen kasuan, komunikatzeko euskararen beharrik ez dutenez, nabaritu dugu normalizazio proiektuaren beharra".

Beasaingo Andramendi ikastolako Arantza Sarriegik azaldu zuenez, euren ikastetxean eraldaketa egitea erabaki zuten, "ikasleak euskaldunak izateaz gain, euskaltzaleak ere izatea da gure helburua. Egiteko horretan irakasleek paper garrantzitsua betetzen dutenez, hauek prestatu egin behar dira".

Tolosako Hirukide ikastetxeko Maite Etxaberrik Tolosako hiru ikastetxe kontzertatuek bat egin zutenean antolaketa egiteko helburuarekin abiatu zutela proiektua azaldu zuen. Joseba Antxustegietxartek hasiera batean berez hasi zirela lantzen aipatu zuen, baina "lan tresna bat izan genuen esku-artean eta prozesua orduan bihurtu zitzaigun kontziente". Gainontzeko hizlariek egin zuten moduan, taldean lan egiteak duen garrantzia nabarmendu zuen, eta bide horretan, horizontaltasunez lan egitearen garrantzia.

Neus Sanmarti

Arratsaldeko saioan, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle Neus Sanmartik "Konpententzia komunikatiboen lanketa ikastarlotu guztien bidez" hitzaldia eman zuen. Ikastetxe batean garatu daitekeen esperientziaren adibidea eman zuen. Hizkuntza ikasketetarako tresna bat dela azaldu zuen. Hizkuntzak aparteko ikasgaietan bete behar duen funtzioari dagokionez, ikasgai horietako hiztegia eta kontzeptuak lantzeaz gain, ikasgai bakoitzak badu bere hizkuntza tekniko berezitu. Hori ere landu behar da, modu koordinatuan, zentro osoko hizkuntza irizpide bateratuari jarraituta, Neusen esanetan. ●

Erotu egiten al ditugu gure seme-alabak eskolaz kanpoko ekintzekin



Central Parkeko eszena: Jessy Wiat (Diane Keaton) bi urte eskaseko alaba zaintzen ari da eta aho zabalik geratzen da beste ama batzuek, bakoitzak bere agenda eskuetan duela, *eskolaz kanpoko* buruz diotena entzuterakoan:

- Zer moduz asteazkenetan gazte sinfoniarako?

- Ez, ez, Nikolek arte dramatikoa ikasten du asteazkenetan.

- Benek opera eta frantsesa du astelehenetan, xakea asteartetan... Zer moduz ostiralean, biolina eta gero, eta psikiatra baino lehen?

Beste ama bat hurbiltzen zaie eta negarrari ematen dio, "curriculum" eta "erreferentzia onenak izanik ere", ez dutelako bere umea onartu haur hezkuntzako eskola onenean, eta horrek luxuzko unibertsitatearen batean ezin sartu izana ekarriko diolako.

Elkarrizketak honela segitzen du:

- Alex arte dramatikoa daukat matrikulatuta jaio zenetik.



IÑAKI MARTINEZ URMENETA
ESKOLAKO ORIENTATZAILEA ETA NUPEKO IRAKASLEA

Charles Shyerrek, 1987ko "Baby Boom" filmeko zuzendariak, irri egiten zuen garai haietako amerikarrek umeen eskolaz kanpoko agendekin zuten obsesioaz. Eszena berean aipatzen dira duela zenbait urtetik hona gurean sona handia hartu duten adimena "biderkatzeko" programak ere. Hurrengo

eszenan, "adimen bit" delakoarekin lotutako jarduera bat ikusten da, oinarri zientifikorik ez duen programa horietakoa. Garai hartako amerikarren kezka islatzen du filmak, noraino ailega zitezkeen euren seme-alabei heziketarik onena emate arren... Beste gauza asko bezala, 1980ko hamarkadako amerikarren kezka guregana iritsi da orain.

Esan behar da, "Euskal Herriak bere eskola" leloak dioten antzera, garai eta jendarte bakoitzak bere irakaskuntza prozesuak, bere beharrak asetzeko hezkuntza sistema, bere eskola, aisialdia eta, zenbaitetan, eskolaz kanpoko bere jarduerak ere sortu dituela. Azken finean, aisia eta ikaskuntza motaren bat lotzen dituzten jarduerak eskolaz kanpoko ekintzak dira. Gaur egun, eskolaz kanpokoak sistemaren zati dira, nahiz eta ez egin eskolan bertan. Begira izenei ere: kirolari lotuta daudenak "Kirol Eskolak" deitzen dira. Hori gertatzen da, orain, 2010eko Euskal Herrian, To-



kion XX. mendean, Eskozian industria iraultzaren garaian, Mendigorrian egun, edo Spainian duela 50 urte. Nork ez du “El florido pensil” irakurri edo ikusi. Duela 100 urte arte Europako gizarteetako gehiengo nagusia artisau, artzain edo nekazari zen, eta horretarako ez zen eskolaldi luzerik behar, ezta haien osagarririk edo eskolaz kanpoko ere. Are gehiago: haurtzarorearen historia beldurgarria izan da. Duela 200 urte arte inguruotan umeek bizi izan duten egoera latza izan da (eta baita gaur egun ere, munduko zonalde gehienetan). Horren harira, orain XXI. mendeko hiritarrak ditugu gure eskoletan, eta beharko duten prestakuntza erabaki behar dugu. Eta eskolan ikasten da, bai, baina aisialdiko esparruan lagunak egiten dira, nortasuna osatzen da; eragin handiko esparrua da, alegia. Gizaki hauek, gaurko umeak, etorkizuneko pertsona solidarioak, gizartean parte-hartzaile aktiboak, zuzenak, emozionalki orekatuak, teknikoki prestatuak izatea nahi badugu, erabakiak hartu beharko ditugu gure eskoletan eta baita aisialdiko esparruan ere.

Nolako hiritarrak hezi nahi ditugu XXI. menderako? Eta, ondorioz, zein eskola edo zein *eskolaz kanpoko* ari gara eskaintzen gure ikasleei? Arlo horretan galdera asko sortzen zaizkit: etorkizunean ere orain arte ezarritako lehiakortasuna izango al da neurtzeko tresna? Zer ikuspegi eman *eskolaz kanpoko*ei? Hau da: zertarako nahi ditugu?

Gure ikasleak esperientzia didaktiko informal batez gozatzeko? Etorkizunean zaletasunak eta lagunak izateko? Mundu lehiakor honetan bizirauteko? Nonbaiten zainduta edukitzeko gu lanean ari garen bitartean? Besteen gainetik nabarmentzeko? Musika, lagun edo familiarekin gozatzeko eskainiko dugu edo ogibide gisa balio izateko? Kirola egitea, osasuntsu eta pozik egoteko edo profesional mailara iristeko? Margoketa, arteaz gozatzeko edo beste gaineko abantaila izateko? Hizkuntzak, munduko aniztasunaz gozatzeko edo lan aukera hobeak lortzeko? Galdera horien erantzunaren arabera gauza bat edo bestea eskaini beharko genuke *eskolaz kanpokoetan*. Eta, horren arabera, askotariko jarduerak eskaini beharko genizkieke: irristaketa, xakea, ingelesa, biolina, txinera, atletismo... Aztertu egin beharko genuke zein zentzutan erantzuten dieten gaurko eskolaz kanpokoek aurreko galderari, ea gizartearen edo umeen beharrei erantzuten dieten, edota ez ote dauden, oraingo gizarte konplexu honetan, beste faktore batzuk ere tartean: presa eta arrakastaren beharra, adibidez.

Has gaitezen analisiarekin:

Nafarroako Eskola Kontseiluak ikasle nafarren jardunaldiari buruzko txostena argitaratu du joan den urrian. Har ditzagun 6. mailakoak. Ikerketak, beste hainbat gauzaz gain, honako datuok jasotzen ditu: 6. mailako ikasleek, egunero, denbora hori igarotzen dute

Gizaki hauek, gaurko umeak, etorkizuneko pertsona solidarioak, gizartean parte-hartzaile aktiboak, zuzenak, emozionalki orekatuak, teknikoki prestatuak izatea nahi



badugu, erabakiak hartu beharko ditugu gure eskoletan eta baita aisialdiko esparruan ere.

jardueratan: 5,7 ordu eskola orduetan, 1,6 etxeko lanetan, 0,4 garraioan eta 1,8 bazkaltzen eta jostaldietan. Oro-tara, eskolan, 9,5 ordu. Horrez gain, ikasleen % 82,3k egiten ditu eskolaz kanpokoak: % 75ek eskolatik kanpo 1,1 ordu sartuz, eta % 33k eskolan bertan (batzuek handik kanpo eta barruan egiten baitituzte) 1,7 orduz sartuz egunean. Osotara, Nafarroako ikasle gehienek egunean 11 ordu inguru pasatzen ditu antolatutako jardueraren bat eginez. 11+10 orduko loa = 21 ordu.

Gainerako guztietarako 3 ordu dituzte: adibidez, jolasteko (oroitzen ote gara umeek jolastu egin ohi dutela?), lagunekin egon eta jolas egiteko (DBHko titulurik gabe edonora goaz, ez, ordea, lagunik gabe), etxean laguntzeko (gehienek egiten dutelako, euren aitek baino gehiago, estatistiken arabera), anai-arrebekin jolasteko, zaletasunak zaintzeko (irakurri, bekatua ez bada; gurasoekin egon telebistaren baimenarekin; umeek badute gauza txar bat, gurasoak dituzte eta, are okerragoa, maiz egon nahi dute haiekin), pantaila baten aurrean egoteko (kontsola, telebista, ordenagailua)...

Horrez gain, % 38 eskola partikularretara doaz (zer egiten dugu eskolan

Ikerketak, beste hainbat gauzaz gain, honako datuok jasotzen ditu: 6.

mailako ikasle-ek (11-12 urte), egunero, denbora hori igarotzen dute

jardueratan: 5,7 ordu eskola orduetan, 1,6 etxe-ko lanetan, 0,4 garraioan eta 1,8 bazkaltzen eta jostaldietan. Orotara, eskolan, 9,5 ordu.

ikasleen heren batek baino gehiagok partikularretara joateko beharra baldin badu, 6. mailan?) Ikerketaren arabera, ikasleek dituzten ordu libreak hauexek dira: 9,7 aste barruan (1,94 eguneko) eta 13,2 asteburuetan (6,6 egunean). Zer egiten dute ordu libreetan? Telebista ikusi, musika entzun, kirola egin, familiarekin egon, ordenadorean ibili, irakurri, mugikorrarekin ibili, musika jo, aldizkariak irakurri, jokoetan jolastu, lagunekin ibili, irratia entzun, kontsolekin ibili, erosketak egin... denboraren arabera ordenatuta daude, denbora gehien igarotzen dutenetatik hasita.

Lehenengo ondorioa: nortzuk joaten dira eskolaz kanpokoetara? Ikasle gehienak joaten dira eskolaz kanpokoetara (6. mailan, %82). Ehuneko handia da, dudarik gabe. Baina bi gurasoek etxetik kanpo egiten badute lan, %80ak egiten du eskolaz kanpoko jardueraren bat. Lanera joaten ez badira, kopurua %56ra jaisten da. Baliteke datu hori oso zehatza ez izatea, guraso langileen eta ez langileen ezaugarriak -hori gero eta aldakorragoa den arren- eta diru iturriak kontuan hartuta. Egia ekidinezina hauxe da: umeek nonbait egon behar dute lan egiten dugun bitartean.

Nafarroan jaiok, proportzionalki, parte-hartze handiagoa dute jarduera hauetan (%84), Amerikan (%45), Afrikan (%55) edo Europan (%47) jaiok baino. Hau da, kanpotarrak integratzeko tresna bat alperrik galtzen ari gara. Nire ustez, eskola inklusiboak zerritarak integratzeko aprobeitza zezakeen aukera hau, baina ez du gauzatzen, datuen arabera. Nafarren sare soziala aberatsagoa da, eta aberasteko aukera gehiago sortzen ditu.

Populazio piramideari begiratuta, askoz ere ume gutxiago daude orain azken belaunaldietan baino. Lehen aipatu bezala, ume asko ginen eta kalean denbora asko egoten ginen. Orain, haur gutxi ditugu eta ederki zaintzen ditugu. Gaur egungo gurasoek, beraiek izan ez duten guztia eman nahi diete seme-alabei/ikasleei: irakasle onak, eskola onak, instalazio onak, programa onak, material onak... normala denez. Bestalde, gaurko umeenak jarduera zainduak izaten dira, eta ez ditugu begiralerik gabe ulertzen. Era berean, antolatua ere badira, euren ordutegi eta baldintzekin (lekualdatzeak, eta abar).

Bigarren: zenbat denbora? Denbora asko (1,1 eta 1,7 ordu bitartean). Astearen egun bat libre izan nahi badute, egunero 2-3 ordu pasako dituzte eskolaz kanpokoetan. Objektiboki, asko da. Baina ez dago irtenbide errazik. Gurasoek lan ordutegi luzeak ditugu, eta nonbait egon behar dute umeek. Hori horrela, horrela jarraituz gero, "Slow movement"-ek egiten duen apustuaren antzeko zerbaitek egiten ez badugu, eskolaz kanpoko jarduerari, hots, "estraeskolarrak", "stresskolarrak" deitu beharko diegu.

Ez dut orain urte batzuetako daturik, baina pentsatzekoa da denboraren banaketan ere aldaketak egon direla: oraingo ikasleek lehen baino denbora gehiago pasatzen dute antolatutako jardueretan. Horren froga dugu aisialdiko lan eremua sortu eta handitu izana (badira ere helduentzako aisialdia antolatzen duten enpresak), eta garai bateko boluntarismoa (ezer kobratu gabe umeak zaintzea, entrenatzea) desagertu

tuz doa. Halaber, profesionalizazioa, normaltasunez onartu beharrezkoa, iritsi da esparru honetara. Eta horrek eskolaz kanpoko jarduerak gero eta antolatua direla erakusten du. Badirudi gaur egun antolatu gabeko jolas lekua galtzen ari dela. "Plazan, kalean egotea". Klima hotz eta hezeko txoko honetan behintzat. Halere, hau ez da gaurko umeen joeraren ezaugarria, gaurko gizartearen joeraren ezaugarria baizik. Horra hor gazteen etxebek eta lonjak, lehen ez zeudenak, helduon teilatupeko aisialdia elkartetan, jubilatuen klubak... horren adibide ditugu guztiak.

Hirugarrena: non egiten dira? 6. mailako artean, %48k eskolan bertan egiten ditu, eta %34k kanpoan. Beraz, jarduera horiek eskolan egiten dira, baina baita kanpoan ere, horrek berak dakarren joan-etorriarekin. 1960eko hamarkadako "Baby boom" belaunaldikoak asko ginen 1970-1980an, eta orduan ez zegoen instalazio askorik. Jarduerak kalean edo eskoletan egiten ziren, nagusiki.

Laugarrena: zer egiten dute? Kirola, ingelesa eta musika, hurrenez hurren, bai kanpoan, bai eskolan barruan. Honetan ez da aldaketarik sumatzen, betidanik izan diren jarduerak dira, nire amak berak ingelesa, eta nire aitak musika, eskolatik kanpo ikasi baitzituzten gerra aurreko Iruñea zaharrean.

Bosgarrena: eskolaz kanpokoek eskolako lanek baino bi aldiz gehiago asebetetzen dituzte ikasleak, (%80a, %40ren aldean). Badakit guk, irakasleok, dauzkagun baldintzak (curriculum bete beharra, saiok prestatzeko denbora falta, administrazioak bidalitako lan neketsuak, erronka berriak agertu eta horiei inolako prestakuntzarik gabe erantzun behar izatea, ratio handiak, gurasoen eskaerak...) ez direla egokiak eskola erakargarriak egiteko, baina datu horretan pentsatu beharra daukagu, nire ustez.

Hori horrela izanda, kontua hau da: eskolaz kanpokoek diren bezalakoak izan beharko lukete, edo beste zentzu bat eman beharko genieke?

Hasteko, baldintza askoren menpe gaude:

1. Eskoletako ordutegi luzeak: ikasleak goizeko 9:00etan sartu eta 16:30ean ateratzen dira (7 ordu eta erdi-koak). Ikasleek bazkaltzeko behar duten denbora eta ondorengo jostaldia murriztuz, lehenago atera litezke eskolatik. Azken urteetan Nafarroako zenbait eskolatan ezarri den ordutegi jarraituak ez du arazo nabarmenik sortu, edo ez da ezer entzun, bederen. Zaila zen Nafar Gobernuako ordutegi hori ezartzeko baldintzak betetzea. Beraz, alda daiteke eskolako ordutegia lehenago bukatzeko, agian, lehenago sartuz, agian, eguerdiko aisialdia murriztuz, umeek arratsalde libreagoa eduki dezaten.

2. Eskoletako ordutegi zorrotzak: denontzat berdinak, bai 3 urtekoentzat, bai 12 urtekoentzat. Irudimen eta malgutasunik gabekoak. 3 urteko umeek lo egiten dute eskolan, arratsaldeko saioa gogoz hasteko. Ezinbestekoa al da Haur Hezkuntzako 3 urteko haurrak gelan egotea arratsaldeetan? Europako Haur Hezkuntzako curriculum pisutsuena omen dugu. Behar al da halakorik? Eskola antolaketari dagokionez, arratsalde jai izatea ez da arazo handia. Lan jardunaldiari dagokionez, beste maila batzuetako laguntzak antola zitezkeen, proiektuak sakonki prestatzeko erabili. Ikasleak siesta behar badu, etxean egin eta gero anai-arreba nagusien bila joan daiteke. Eta gurasoen ordutegia... Laugarren puntuan ekingo

diot gai horri.

3. Gizartearen ordutegiak: Holandak, Alemaniak eta Belgikak dituzte Europako lan ordu murriztenak, eta produktibitateari dagokionez, ez daude okerrenen artean. Europako beste herrialde batzuekin alderatuta, gure lantegiak eta dendak oso berandu arte egoten dira irekita. Eta horrek pentsarazten du jendea ere oso berandu arte egoten dela etxetik kanpo, umeak bere lana bukatu baino askoz ere beranduegora arte. Horrek badu bere eragina, eskolaz kanpokoak bilatzera behartzen gaituelako; eta horrez gain, etxeko lanen gainbegiraketan ere eragiten du. Berandu ailegatzen gara etxera, eta familian, elkarrekin egoteko denbora murriztu egiten da.

Alde horretatik, Espainiako Ordu-tegien Arrazionalizaziorako Batzorde Nazionalak eta Madrilgo Komunitateko adin txikikoen defendatzaileak ateratako dekalogoan, besteak beste, hau xe eskatzen zuten 2008an:

- Helduen eta umeen ordutegia ahalik eta gehien bateratzea, elkarbizitza bultzatuz.
- Administrazioak familiari laguntza handiagoa ematea (gaurko Barne Produktu Gordineko 2,7a urrun dago Europako batez besteko 8,2tik).
- Babes soziala hobetzea umeak zaintzeko: amatasun baimenak, doako eskolatzea, lan banaketa malgua, familiarentzako laguntzak, kalitatezko zerbitzuak...
- Eragile sozialak inplikatzeko ama-

Eskolaz kanpokoek eskolako lanek baino bi aldiz gehiago asetzen dituzte ikasleak, (% 80a, % 40ren aldean). Badakit guk, irakasleok, dauzkagun baldintzak (curriculumak bete beharra, saioak prestatzeko denbora falta, administrazioak bidalitako lan neketsuak, erronka berriak agertzea eta erronka horiei inolako prestakuntzarik gabe erantzun behar izatea, ratio handiak, gurasoen eskaerak...) ez direla egokiak eskola erakargarriak egiteko, baina datu horretan pentsatu beharra daukagu, nire ustez.



tasuna ontzat har dadin.

• Ordutegiak malgutzea, langilearen beharren arabera.

• Eskolako jardunaldian kontuan izatea txikien erritmo biologikoak, horrela, gurasoek eta umeek eskolaz kanpoko jarduerak parteka ditzaten, baita komunitatean ere; modu horretan, ikaskuntzarekiko asetasuna, errendimendua eta interesa handituko dira.

• ...

4. Familien ordutegiak: gurasoen lan ordutegia. Belaunaldi honetan umeak izateko bi soldata behar dira, eta guraso gehienek hainbat orduz egiten dute lan. Ez dago erraztasunik malguta-

Egin ditzagun eskolaz kanpokoak umeen gozamenerako. Oreka afektiboan egon daiteke lehiakortasunaren gakoa, depresioa lehen mailako eritasun bihurtu den XXI. mende honetan. Umeak gogoz joan daitezten, horien prestakuntzarako egokiak direlako, entretenigarriak direlako. Ez gurasoek zaindu ezin dituztelako, edo gurasoek txikitan ezin izan genituelako egin.



sunez lan egiteko: aldi baterako lana, etxetik egitekoa, distantziak handiak dira... Gurasoek umeak nonbait utzi behar dituzte, eta nonbait hori familia ez bada -horra hor amaxi esklaboaren sindromea-, eskolaz kanpokoak izan daitezke. Hona hemen zenbait aipamen honi buruz:

- Gure lan esparruan gertatzen den zerbaite da: presentziaren kultura. Jendea lanean egoten da nagusiak lanean ari direla ikus dezan. Europako estatistiken arabera, espainiarrak dira lanean denbora gehien igarotzen dutenak, eta produktibitate gutxien ateratzen dutenak.

- Espainiarrek, gauero, European baino 53 minutu gutxiago egiten dute lo. Horrek siesta egitera behartzen al ditu?

- Maiz esaten da telebistako ordutegiak jendearena baldintzatzen duela, jendeak ikusten dituen programak oso berandu hasten direlako. Baina ez da esaten telebistako produktuak gero eta gehiago kontsumitzen direla (batez ere

gazteentzakoak, hemendik gutxira gurasoak izango direnentzakoak) Internet bidez, hau da: nahi dutenean.

- Europako ekonomia bateratu horretan, Espainiako ordutegia ez dator bat beste herrikoenarekin, eta horrek zailtasun handiak sortzen ditu. Gure ordutegi sistema 1941ekoa da. Ordubete lehenago jaikitzea edo bazkariaren denbora ordu bete murriztea aski litzaiteke zailtasun horiek gainditzeko. Denok lanetik lehenago aterako ginatkeen, eta gure aisialdiak, familiak edo nahi dugunak irabaziko zukeen. Ezin gaitu baldintzatu ia bonbillak existitzen ez zirenean ezarritako ordutegi batek. Orain nahiko bonbilla badira.

Arestian aipatutako lau baldintza horiek gaituzte bagenitu, kalitatezko eskolaz kanpoko egoki batzuk eskaini beharko genituzke. Eta horri helduz, eskolaz kanpoko jardueren diseinurako iradokizun batzuk doaz hemen:

- **Lehiakortasunaren mamua uxatu:** beharbada ezin izango dugu jadanik lehiakorrik izan, ekialdekoen lan baldintzak kontuan hartuta. Beraz, egin ditzagun eskolaz kanpokoak umeen gozamenerako. Oreka afektiboan egon daiteke lehiakortasunaren gakoa, depresioa lehen mailako eritasun bihurtu den XXI. mende honetan.

- **Ordutegiak aldatzeko baldintzak jarri:** gizonek etxeko lanetan edota gero eta gehiago diren menpekoen zainketan pasatzen ditugun orduak areagotu; lan munduan beste lanaldi eredu batzuk proposatu: etxetik egindako lan eredu zabaldu, ordutegi murrizketak erraztu...

- **Eskola inklusiboaren eskolaz kanpokoak diseinatu:** sendoki antolatutakoak, askotarikoak, familia eredu beharrei egokitzen direnak, jatorri askotako ikasleei egokitzen direnak, denengana iristen direnak (baita herri txikietan bizi direnengana ere), ezintasun psikikoa zein fisikoa duten ikasleengan pentsatuta egindakoak ere...

- **Eskoletako ordutegi jarraitua:** guraso lanpetuen ordutegia eta astia duten ikasleen ordutegia bateratzeko

uneak sortuko lirateke.

- **Benetan hautazkoak:** umeak gogoz joan daitezten, horien prestakuntzarako egokiak direlako, entretenigarriak direlako. Ez gurasoek zaindu ezin dituztelako, edo gurasoek txikitan ezin izan genituelako egin. ●

Bibliografia

INTERNET:

<http://www.horariosenespana.es/index.php?module=inicio>

<http://www.horariosenespana.es/index.php?module=publicaciones&padre=2>

<http://www.horariosenespana.es/descargas/pdf/DECÁLOGO%20HORARIOS%20ESCOLARES.pdf>

<http://irati.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra/>

<http://irati.pnte.cfnavarra.es/consejo.escolar.navarra/attachments/Ikasleen%20eguna.pdf>

LIBURUAK:

Asociación para la racionalización de los horarios españoles (ARHOE). III Congreso nacional para racionalizar los horarios españoles. Tarragona 2008

FILMA:

"Baby boom". Charles Shyer. 1987. (Gaztelaniz "Baby, tú vales mucho")



* Atal honetan erabilitako 3 argazkiak Herri Ametsa ikastolako egutegitik hartu dira.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.
Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urtarrila
berriak

Richard Weyndling: “TIL ereduak ez du funtzionatuko, desilusioa hartuko dute gurasoek”

Richard Weyndling eskoziarra ingeleseko irakaslea izan da zortzi urtez Nafarroako maisu-maestrak prestatzen. Nafar Gobernuaren IGI irakaskuntzarako gaitasun ikastaroetan aritu da. Hau da, ingeleseko irakasleen irakasle izan da.

Bere ustez, TILeredua ezartzeko ez dago baliabide nahikorik, eta D ereduaren hobesten du aukera guztien artean. Haren hurrek eskolan ikasi dute euskara, eta, berak ere euskara ikasi du.

Richarden esanetan, oinarritzko euskara ikasteko D ereduaren eraginkortasuna frogatua dago. Lehen Hezkuntza amaitzean, euskaraz komunikatzeko gai dira haurrak. Elebidunak dira eta azkarragoak ere badira beste hizkuntza bat edo edozein ikasgai aurrera ateratzeko. “Eskolan beste hizkuntza bat izatea ikasteko altxor bat da. Gainera, kultura ez galtzeko hizkuntzak garrantzi handia du. Gurasoontzako ere, euskara ikasteko estimulua dugu, gure seme-alabekin hitz egitea eta etxeko lanetan laguntzera motibatzen gaitu. Nik, esaterako, euskara ikasi dut

D ereduari esker”.

TIL ereduarekin kritikoa da

“Nire hurrek euskara eskolan ikasi baldin badute, irakasleen konpromisoarengatik izan da” dio Richardek. “Irakasleak hemengoak dira eta hizkuntza sentitzen dute, euskaldunak dira. TIL ereduaren ordea, ez dira ingelese sentimenduz transmitituko duten irakasleak. TIL ereduaren irakasleek ez dute inoiz lortuko irakasle euskaldunen maila. Nik, ingelesezko irakasleen irakaslea nintzenean, ikusi nuen maila igotzen ari zela. Izan ere, jende gazte euskalduna hasi da ingelese ikasten, eta elebidunak direnez, beste hizkuntza bat ikasteko erraztasun handiagoa dute. Baina ez dute maila bera lortuko. Ni beraiekin aritu naiz eta badakit zer maila duten. Lehen Hezkuntzako irakasle batzuk ez dakite esaldi oso bat esaten ingelesez. Eta nahi dute irakasle horiek beste ikasgai batzuk ematea. Engainu bat dela pentsatzen dut. Gauregun, irakasleen %10ak, eta goitik jota %20ak, izan dezake ingelesez irakasteko maila”.



D ereduaren ahultzeko

Nafar Gobernuak D eredu indartsua saihestu nahi duela dio Richardek. “Eremu mistoko gurasoek D ereduaren irudi oso ona dugu”.

“Gure seme-alaben etorkizuna oso garrantzitsua da, eta ingelesak lan arloan hartu duen garrantzia oso handia da. Gobernuak esaten badu ingelese ikasteko TIL ereduaren ezinbestekoa dela, guraso batzuek hori aukeratu dute. Hurrek hiru hizkuntza ikasteko gaitasuna badute, eta jakingo dute arlo bakoitzean erabili behar dutena. Baina baldintza onak jartzen ez badituzte, hurrek ez dute hizkuntza batere ongi ikasiko”.

Talde txikiak behar dira

Eskolan ingelesez komunikatzen irakasteko talde txikiak behar direla dio. “TIL ereduak ez du funtzionatuko, desilusioa hartuko dute gurasoek. Ez dute lortuko D ereduak euskararekin lortu duena”, gehitzen du.

Txikitatik telebista ingelesez ikustea

Europako hainbat lurraldetan ez dira marrazki bizidunak eta filmak bikoizten. Danimarkan, Herbeheretan, Portugalen eta abarretan hizkuntza originalean, ingelesez, emititzen dituzte telebistan, eta txikitatik ohitu egiten dira. “Hara joaten bazara konturatan zara maila ona lortzen dutela. Ona litzateke hemengo politikariak halako tokietara joatea eta zer gertatzen den ikustea”.




Jira bira munduari begira

Euskal Herrian hainbat jatorritako pertsonak biltzen gara herri eta hirietan. Egoera berri edota berritu horrek, zalantzak, nahasteak, gatazkak... sortzen ditu, ezjakintasunak, aurreiritziek eta estereotipoek, jarrera arrazistak, xenofoboak bultzatzen dituztelarik Hori dela eta, jendarte anitz horretatik etekin positiboak ateratzeko, auzokide berrietara hurbiltzeko, arrazakeriaren prebentzioa lantzeko... eta finean, kulturartekotasuna lantzearen beharri erantzuteko, material pedagogikoa aurkeztu du Bizkaiko Urtxintzak.

Argitalpen itxura hartu duen materialak, 12 herrialdetako 24 jolas, 12 tailer, 12 errezeta eta 12 ipuin plazaratzen ditu.

Bilduman, hainbat jatorri kulturaltako haurrek, beraien kulturak aurkeztuko dizkigute. Hortaz, *Jira Bira Munduari Begira* argitalpenean hauek dira agertuko zaizkigunak: Brasil, Txina, Ijito Herria, Sahara, Kolonbia, Filipinak, Euskal Herria, Bolivia, Senegal, India, Errumania eta Maroko.

Baliabidea adin ezberdinetara moldagarria bada ere, Lehen Hezkuntzako haurrei (6-12 urte) zuzenduta dago.



Hola!
6 urte ditut eta Gabriela dut igena, nire amamak begala. Amarekin, aitarekin, Urai nebarekin eta amamarekin bigi naiz.

Nire familia gehiena Kolonbian bizi da, nire aitona, izeko, osaba, nire beste amama, lehengusuak... Baina badakut familia Euskal Herrian ere! Familia bi herri hain ezberdinetan izatea gustoko dut, bidaiatzeko aitzakia ederra delako! Badakizue? Oso gustoko dut bidaiatzeko! Ametsetan nagoenean, itsasontzi batean noala imajinatzen dut, arrantzaleekin aritzen naizela arrainak hartzen, herri batetik bestera! Kolonbiara, Euskal Herriara...!

Nire neba ni baino negusigooa da, 13 urte ditu eta institutuan ari naiz ikasten. Zorionez edo zoritxarrez, aitarekin egiten du topo bati bertan, aita bertako bedela baita! Bere lana dela eta, nire aitak herriko gazte guztiak ezagutzen ditu. Horregatik herriko pertsonarik garantzitsuenoa dirudi! Mundu guztia agurtzen du kalek! Nire amak eta nire amamak, gure etxeaz gain, beste familia batzuen etxeak gorbitzen dituzte. Artista hutsak dira lan honetan eta gure etxera baldin bazatuz berehala nabarietuko duzu! Ezetz orbanik aurkitu!

ERREZETA

Kus-Kusa

Errezeta hau egiteko lan nahikotxo aegin behar da, zuritu, zafitu, egosi... baina bukatzen duzenean egindako lana eskertuko duzu, oso plater goxoa baita! Jakingo duzuenek, pertsona musulmanek ez dute txerrikik jaten, horregatik gamelu edo artxo haragiarekin eta barazki ezberdinekin egingo dugu errezeta gozo hau

Adina: 10 urte gutxienez
Zailtasuna: 🍴🍴🍴

Beharrezko materiala:

- 200 edo 300 gramo kus-kus
- Txerrika ez den haragi zatia
- 2 kalabazin
- Piper gorri 1
- Tipula 1
- 2 tomate
- Foru 1
- 2 azenario
- 3 berakatz
- Gatza
- Oliba
- Ura

Nola egin:

Barazki guztiak zati txikietan zatituko ditugu. Haragiarekin ere berdina egingo dugu (gogoratu ez dugula txerrikik erabiliko).

Lapiko batean oliba bota eta hau bero-bero dagoenean, haragia botako dugu. Haragia lapikoan egiten denean, lapikotik atera eta plater batean ipiniko dugu.

Lapiko berdinean, aurretik zatitu ditugun barazki guztiak botako ditugu. Barazkiak egiten diren bitartean, plater batean izango dugun kus-kusari ur beroa botako diogu gatzarekin, berau hezetasunean mantentzeko.

Barazkiak eginda daudenean, haragia gehituko diogu eta hau guztia erre ez dadin, egurrezko kolara batekin mugitzen ibiliko gara.

Kus-kusa lur/netan egosi behar da. Janaria mahaira eramateko arduan, alde batetik kus-kusa izango dugu eta bestetik, barazkiak eta haragia. Jateko, bakoitzak nahi duen osagai kopurua hartu eta on egin!



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azken eztabaidak utzi diguna...

>>> "Irrien Lagunak Kluba" sortu berri da. Aurreko aldizkarian, euskal jendarteari zer eskaini nahi dion informatu genuen. Zer iritzi duzu Klubaren gainean? Zer ekarpen egin dezake? Zer arrisku ikusten dituzu? Zer proposamen berri egin liteke?

> Oso egokia

Hasieratik jarraitu dut Klubaren sorrera eta lehen hastapena. Oso ideia ona eta egokia dela irizten dut. Halako kluba mantentzea zaila dela jakinda, ausarta izan da horren sorrera. Egia esanda, azken aldian behintzat, ez dut haur txikientzat telebista edo irrati saio egokirik aurkitzen. Dagoen hutsunea Klubak bete dezakeela uste dut. Zorionik handienak nire partez. *Ikerne Lopez*

> Arriskuak baditu

Ekarpen ona izan daitekeela pentsatuta ere, arrisku batzuk ikusten ditut. Niretzat Pirritx eta Porrotx oso sartuta dute gure umeek. Leku guztietan, edozein mementotan egongo lirakeke beraiei begira. Ez ekitaldietan soilik. Etxean bideoak ikusten, CDak entzuten, beraien ipuinak ikusten, panpinak... Orain klubaren muina ere Pirritx eta Porrotx dira. Ona al da halako saturazioa? Beste eredu batzuk izatea ere ona dela iruditzen zait. Horregatik, erakargarriak eta lan ona egiten dutela onartuta ere, arriskua badagoela uste dut, obsioaren arriskua, eta hori ezin da ona izan umeentzat. *Mari E.*

> Arrisku onak

Batzuetan arriskatu egin behar da. *Irrien Lagunak Kluba* arriskatzea izango da ziurrenik. Arriskua omen da hain popularrak izatea eta hainbat jarraitzaile lortzea, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kasuan bezala. Behin baino gehiagotan entzun dut hori esaten guraso batzuen ahotan: "Nazka-nazka eginda nago umeek hainbeste eskatzea pailazo horiek, ez dute besterik nahi!" Zergatik ote da? Ikusi zer eredu dituzten telebistan eta abarrear, eta erantzuna ez da zaila imajinatzen.

Saturazioaren arriskua dago agian, baina betekada ederra izango da, babarrun gorri, eder eta goxoekin baino handiago balitz ere, ez litzateke txarra izango. Ni arriskatzeko prest nago, halako arrisku onekin. *Maria Luisa F.*

> Gustuko editoriala

Gustatu zait *Irrien Lagunak* buruz idatzitako editoriala. Hasieran, gaia ikusi nuenean, halako aldizkari serio batentzat ez zela egokia iruditu zitzaidan. Dena den, jakin-mina sortu zitzaidan eta engantxatu egin ninduen. Gero, editoriala irakurtzean, zentzua zuela ohartu nintzen.

Nire ustez, edukietara joan behar da, askotan aurreiritziekin jokutzen dugu, eta editorialak badu edukia. Pentsarazi egin dit hezkuntzaren arduraren norena den edo izan beharko lukeen. Horretarako, behinik behin, balio izan dit. *Markel G.*

> Niri ere bai

Ez nuen irakurria eta zurea ikustean gogoia sartu zait. Mila esker, pista ona eman didazulako. Bai, egokia iruditu zait editoriala. Askotan gauza zailen eta bete ezinen bila ibiltzen gara. Gauza sinpleak, beharrezkoak eta egingarriak direnen atzetik ibili beharko genuke. *Irrien Lagunak* proiektu sinplea da, konplexua bada ere. Ongi joatea espero dut, asko eman baitezake. *Mikel I.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Berdina mantenduko da.

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Rock kantariaren bahiketa

Pere Casals
EREIN

Antton Olanok itzuli du ingeniaria eta ikertzaile ere baden idazle kataluniarraren liburua. Tot, neska kantari arrakastatsua kontzertua gori-gori zegoen, bere ahots kraskatuak kirol jauregia betetzen zuen, jendeak beste bat, beste bat eskatzen zuen. Horrela zegoen agertokia Totek agur esan zientean berehala itzultzeko asmoz... Perzebal bildumako alea. •



Sara, nor zara?

Marco Berrettoni / Chiara Carrer
PAMIELA

È non è, Háblame, Parla'm, Fálame, edo Sara, nor zara zu? Fernando Reyek eman dion izenburua. Sara autista da. Batzuetan, katua bezain ixila, bestetan zirkulazioa bezain burrunbatsua, eta eguraldia bezain aldakorra, eta arnasa bezain ikusezina, eta hostoa bezain sentibera... hieroglifo bat dirudi, misterio bat, labirinto bat. Ez du inoren antzik. Desberdina da. •



Laminen sekretua

Juan Martin Elexpuru / Leire Urbeltz
ELKAR

Fraixkok ustekabeko dei bat jaso du, Mario Carmani diseinatzaile italiar famatuarena. Fraixkok idatziriko liburu bati esker, Euskal Herriko laminen berri izan du. Haien edertasun paregabeak liluratu egin du. Ezagutu egin nahi ditu eta bere arropak jantziz, modelo bihurtu. •



Tronpatxo

Antton Kazabon / Eider Eibar
AIZKORRI

Tronpeo, Tronpeta, Tronboi eta Tronpatxo hiru urteko elefante kumeak dira eta pozik bizi dira Keniako oihan zabalean uretan eta lohitan jolas-tuz, siesta eginez... Tronpatxo kezkatuta dago, ordea, gehien gustatzen zaion akazia txikiarenari helduta ere ezin izaten du lurretik atera, tronpa motzetxoa duelako. Zerbait bururatuko zaio arazoa konpontzeko. •



Urrezko igitaia

R. Goscinny / A. Uderzo
SALVAT

Bakea da nagusi Asterixen herrixkan. Bat-batean Panoramix druidaren oihuak entzuten dira. Ala Belenos, Tutatis eta Belisama! Urrezko igitaia hautsi egin zaio eta galiar druiden urteroko biltzar nagusia ospatzeko bezperatan, gainera. Urrezko igitaiarekin bildutako mihurak bakarrik ditu botere magikoak eta Luteziako Amerixek egiten ditugitai onenak. •



Simon Bloom

Michael Reisman / Mireia Orbeagoza
ELHUYAR

Simon, 11 urteko gaztetxoak fisikako legeak gordetzen dituen liburu bat aurkitu du etxe inguruko basoan. Formula zientifikoak eta aztikeriak dira liburuaren funtsa eta haiek nola erabili asmatuz botere handien jabe egingo dira Simon eta bere lagun Owen eta Alyshe. Grabitatea eta marraskadura kontrolatzeko aukera ere izango dute. •

... nora joango gara?

UDABERRIA 2011 EUSKARAZKO EGONALDIAK "EUSKARAZ BLAI"

ARANTZAKO
ATERPEA



ORBELA
Senderismoa · Albergea

BEINTZAKO OSTATUA ATERPETXEA



“Euskarazko Egonaldiak-Euskaraz Blai” proiektua ikasleen euskararen erabilera eta ezagutza sakontzeko asmoz Arantza eta Beintza-Labaiengo aterpetxeetan garatzen da, Nafarroako mendialdean, naturaz inguraturik eta euskara giroan.

Egonaldia: 3 egun (2 gau)

Harrera: 40 ikasle (LH eta DBH) (talde haundiagoak, kontsultatu)

Hizkuntza ereduak: A, B eta D

Prezioa: 75 €

TXANDAK

(eskola egunetan, irakasleek lagunduta)

1) Otsailak 14-16	Arantza	2) Otsailak 16-18	Arantza
3) Otsailak 21-23	Arantza	4) Otsailak 23-25	Arantza
5) Ots. 28-Martx. 2	Arantza	6) Martxoak 2-4	Arantza
7) Martxoak 14-16	Beintza	8) Martxoak 16-18	Arantza
9) Martxoak 21-23	Arantza	10) Martxoak 23-25	Arantza
11) Martxoak 28-30	Beintza	12) Martx. 30-Apir.1	Arantza
13) Apirilak 4-6	Beintza	14) Apirilak 6-8	Arantza
15) Apirilak 11-13	Arantza	16) Apirilak 13-15	Arantza
17) Maiatzak 2-4	Arantza	18) Maiatzak 9-11	Arantza
19) Maiatzak 11-13	Arantza	20) Maiatzak 16-18	Beintza
21) Maiatzak 18-20	Arantza	22) Maiatzak 23-25	Arantza
23) Maiatzak 25-27	Beintza	24) Mai. 30-Ekai. 1	Arantza

TXANDA BEREZIAK

(Iñauterietan eta Aste Saindu ondoren, irakaslerik gabe)

* Martxoak 7-9	Arantza-Beintza	40 + 40 plaza	120 €
* Martxoak 9-11	Arantza-Beintza	40 + 40 plaza	120 €
* Apirilak 27-29	Arantza-Beintza	40 + 40 plaza	120 €

(txanda berezietan sartzen da: autobusa ikastetxetik, egonaldia eta jarduerak)

IZENA EMATEKO EPEA: Urtarrilak 17-Otsailak 4

IRAKASLEERKIN BILERA: OTSAILAK 9, arratsaldez

INFORMAZIOA eta IZEN EMATEA

ARANTZA ATERPE

Tel: 948 634 179
aterpe@arantza.net
www.arantza.net

BEINTZAKO ATERPETXEA

Tel: 948 450 014
orbela@alberguesnavarra.com
www.alberguesnavarra.com/beintza




atzeko atetik



Lierni ALTUBE

ARKITEKTOA



“A, ze presak izaten ditugun haurak gure intelektual ingurura erakartzeko. Tirabiraz eta bultzadaz”.

Imanol Urbieta

Euskal Herritik



Kataluniara

Azken urteotan, hainbat aldaketa ematen ari da Kataluniako hezkuntzan. Hori guztia ezagutzeko asmoz, Bartzelonara joango gara.

EGITARAUA:

- **Apirilaren 27an** (asteazkena). *Goizean:* Ehtik Kataluniarako bidaia autobusez. *Arratsaldean:* Kataluniako hezkuntzaren egoera ezagutuko dugu: erronkak, egi-ten ari diren berrikuntzak... (Generalitat).
- **Apirilaren 28an** (osteguna). *Goiz eta arratsaldez* eskoletara joango gara.
- **Apirilaren 29an** (ostirala). *Goizean:* eskoletara bisitak. *Arratsaldean:* Rosa Sensat hezkuntza elkartekoekin bilera egingo dugu.
- **Apirilaren 30ean** (larunbata). *Goizean:* libre. *Arratsaldean:* EHra itzuliko gara.


Bisitatuko ditugun eskolen ezaugarriak: Haur Eskolak (0-3 urte), HH eta LHko eskolak, eta, aukeran, Nekazal giroko eskola bat.

Tokia mugatua denez, jende gehiagok emango balu izena, HIK HASIko harpidedunek izango lukete lehentasuna.



Kataluniara

bidaiia pedagogikoa



Apirilaren 27tik 30era

Toki mugatuak

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.com